

Bergarako astekaria


# Berrigara

## Agg!

Txakurren  
zikinen arazoa  
konpontzeko  
araudia  
prestatzen



# OPEL



**TALLERES OLA**

Olabarren auzoa 2/g.  
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47.  
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN:  
**TAKOLO AUTOAK, S.L.**  
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa).  
Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK

# Mariaren Lagundia Ikastola

## Ateak zabalik

Otsailaren 20an eta 27an  
11:00etatik 13:30etara  
eta 17:00etatik 19:30etara



200 URTE BERGARAN  
HEZIKETAREN  
ZERBITZUAN

Mariaren Lagundia  
Ikastola, Espoloia 1.  
Tf. 943 76 25 40.

### Diaporama

Ibilaldi gidatuak ikastolan zehar  
Erakusketak: eskulanak eta teknologia  
Txikientzat, umezaintza eta jolastokia

## Zatozte gure ikastola ezagutzera!



# Herri ekimenak sorginduta

Iñaki Gabilondo / Kazetaria

**B**otereak hainbat arau ezarriak ditu. Hainbat arazo ezartzen ditu etengabe, betiere bere interesen arabera. Baina, hala ere, botere hori ematen dion herria ez du guztiz ezagutzen. Herriak gauzatzen dituen ekimen ugari arrotzak bezala tratatzen ditu, ez ditu batere errazten. Traba ugari ezartzen dizkie. Modu zikin guztiak erabiltzen ditu herri ekimenak geldiarazteko. Boterea izan arren, ez da konturatzten ez dela herriaren jabe. Herriak, aldiz, boterearen jabe izan beharko luke. Herria jaberik gabeko txakurra da, zeru izartsua izaten du aterpe eta hezur-gosea lagun; baina nahiago du horrela, jabearen etxean kateatutako txakur aseaz izatea baino.

Diodan guztia argituko duen adibide garbia ekarriko dut hona. Botereak herria bortxatu zueneko adibide garbia. Botere ahalguztidunaren izenean herria hezitzeraino, izutzeraino eta akatzeraino iritsi zen eta gaur egun, boterea banatu den arren, banatutako zati guztietan eragiten duen elizaren adibidea. Elizak ezagutu ez zuen herri ekimena nola akatu zuen errespetu txintik gabe.

Sorginak existitu baziren, ez zen kasualitate kontua izan. Are gehiago, sorginak existitu izan balira, sorginkeriaren bat erabiliz garaile aterako ziren. Eta sorginkeriaren sareetan harrapatuta egongo lizateke botere bera ere. Dena den, existitu ez arren,

sorgin ugari atxilotu, bortxatu eta hil zituen agintzen zuen botere ahalguztidunak.

Hasieran (936. urte inguruan), Aginte Zibila arduratzen zen sorginkeria gaiez, bitartean Elizak gaitzetsi egiten zituen ekintza horiek. Izan ere, Kristautasunaren orduko jarrerak ez zuen sorginen aurkako heriotz zigorrak onartzen. Bide batez, penitentziaren bitartez gaudituko zuten deabrua. Hala ere, Elizak bere burua eremu guztietan zehar behar bezala finkatu bezain laister, bere gain hartu zuen ardura neketsua. Beldurra-zen heziketaren bitartez eta Errege Katoliko-koen "laguntzarekin" Estatu Espainiarrean finkatu zen eta lotsarik gabe, Euskal Herrian zehar inkisizioaren atzaparrek ezezaguna somatu zuten oro deuseztu zuten.

Ezezaguna diot bai. Ezin bailiteke existitu ezagutu ez dena; ezagutzerik balego,

*"Gaur egun ere, bere bidetik kanpo kokatzen den guztia arrotza bailitzan tratatzen du botereak. Gaur egun ere, arrotza den guztia bortxatzen jarraitzen du botereak"*

edo berak sortu du, edo bestela, bere burua ere ezagututakoaren barne egotera zigortzen du halabeharrez.

Baliteke Elizak sorginkeria ezagutzea, baliteke sorginkeria horren arabera sorgin ugari existitzea. Baina Elizak berak ez bazuen sorginkeriarik erabili, nolatan jakin zezakeen zer zen sorginkeria, berak sortua ez bazen behintzat? Erantzun bakarra aurkitzen diot nik itaunari: Jesukristoren eta bere familia Santuaren esanetik at zegoen guztia-ri begiratuta. Edo politago esateko, Kristautasunaren bidetik landa zegoen guztiari erreparu eginez. Lehenik jarraitu beharreko bidea eraiki zuen eta gero ardi guztiak bidean sartzeko, beldurra erabili zuen.

Bitxia da, baina gaur egun ere botereak ezartzen du jarraitu behar den bidea. Gaur egun ere, bide horretatik kanpo kokatzen den guztia (azken batean, berak gauzatzen ez duen guztia) arrotza bailitzan tratatzen du botereak. Gaur egun ere, arrotza den guztia bortxatzen jarraitzen du botereak.

Eta halaxe gertatu ohi da botereak antolatzen eta sortzen ez duen herri ekimen desberdinekin. Eta halaxe gertatu ohi da askatasuna ezagutzen ez duen edozein botere-rik agintzen duenean. Eta bitartean, benetakotako botereak askatasunaren besoetan hartzen du atseden.

Dagokiguna lortuko dugu!! **B**

barruan



**Kristina Markina**

Akulu-AEK Euskaltegia

*"Euskarak gizartean izan dituen lorpenak nabarmenduko dira Korrikan"*

8.



**Antonio Merino**

Korrikalaria

*"Lokatztan ondo moldatzen naiz eta horrek abantaila ematen dit"*

21.



**Jone Molina**

Modeloa

*"Modelo ona izateko gorputza behar da. Gustoko top modela, Cindy Crawford"*

29.

## orain dela...

### BERGARAN GERTATUA

**1876.** Otsailaren 20an Alfonso XII.ak tropa guztien agintaritzat berreskuratu zuen.

**1971.** Otsailaren 28an Maltzaga-Zumarraga trenbide zatia itxi zen. 1889ko abuztuaren 26an hasia zen martxan. Hiru urte pasatxo ziren Vasco-Navarro-a itxi zela.

### EUSKAL HERRIAN GERTATUA

**1491.** Otsailaren 15ean Laudio herria, Bizkaitik banandu eta Arabarekin elkartu zen.

**1980.** Otsailaren 16an Nazioarteko aireportu berria inauguratu zen Forondan, Gasteiz ondoan.

### MUNDUAN GERTATUA

**1952.** Otsailaren 16an Grezia eta Turkia OTANen sartu ziren.

**1965.** Otsailaren 21ean Malcom X beltzen buruzagia hil zuten.

## zozketak

### BONO LOTO

#### Eguakitza 12

4-7-16-21-30-31 (osag.46/itz.6)

#### Astelehena 15

13-46-48-17-31-44 (osag 23/itz.4)

#### Martitzena 16

7-11-17-19-24-42(osag.43/itz.3)

#### Eguaztena 17

14-17-28-38-40-46 (osag.29/itz.8)

### PRIMITIVA

#### Zapatua 13

6-19-28-29-31-45 (osag.25/itz.5)

#### Domeka 14 Saritzarra

6-11-14-31-33-43 (osag.35/itz.6)

### ONCE

**Eguakitza 12:** 94.435 (022 seriea)

**Astelehena 15:** 85.857

**Martitzena 16:** 48.523

**Eguaztena 17:** 76.589


### BESTE BATZUK

#### Jabiloren aldeko zozketa:

14.612, 08.059, 14.926, 09.635 eta 28.935. Deitu 943 79 45 17ra.

## Eguraldia

Igeldoko metereologi behatokia



Eguraldi nahasia izango dugu. Azoreetako antizikloia penintsulara gerturatzen ari da eta pixkanaka ostarteak zabaltzen joango dira. Halere, hodeiak nagusituko dira eta tarteka euria egingo du. Temperatura aldaketarik ez.

## Eguzkia

Domeka, otsailak 21



Sortu: 08:05



Gorde: 19:00

## Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

## Ilargiaren aldiak



Ilberri: otsailak 16



Ilgora: otsailak 23



Ilbete: martxoak 2



Ilbehera: martxoak 10

max. min. euria

°C °C l/m<sup>2</sup>

**Eguena 11** 5 0 13,1

**Eguakitza 12** 8 3 -

**Zapatua 13** 5 -3 -

**Domeka 14** 4 -3 -

**Astelehena 15** 11 1 0,8

**Martitzena 16** 9 5 12,2

**Eguaztena 17** 9 7 10,7

## bertako berbak


Juan Martin Elexpuru

### Ants

Hatsa, kiratsa, usain txarra.

- Sartiaz batera egundoko antsa sentidu juat.

- Etxakixat zerena dan, baiña joaten eztan antsa jaok etxian.



## hamaika ikusteko jaio ginen!

### Hotza eta mina

Hotz ederra daukagu egunotan, baina hau edo bestea jantziz konpontzen gara denok. Jean-Noël Charolais frantses biztanleak, ordea, errekorra hautsi nahi eta 42 minutu eta 39 segunduz 70 zentimetroko sakoneradun zuloan sartuta egon da -7 gradutako hotz-beroa; gainera, zuloaren behea birrindutako kristalez beteta zegoen. Ez hotz eta ez min, gure Jean-Noël.

## Farmaziak

### Eguakitza 19:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 06

### Zapatua 20:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63

### Domeka 21:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63

### Astelehena 22:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15

### Martitzena 23:

GAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74

### Eguaztena 24:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87

### Eguena 25:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 06

## Ogia

**Domeka 21:** Konde.

## Telefonoak

### OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak 112

DYA 943 78 71 51

Gurutze Gorria 943 76 55 76

Larrialdiak 943 46 11 11

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 44

Anbulantzia 943 55 46 62

Udaltzaingoa 943 77 91 06

Ertzaintza 943 76 53 41

Suhiltzaileak 943 78 29 00

Osasun Etxea 943 76 24 44

Arrasateko ospitala 943 03 59 00

Asepeyo 943 76 16 42

Pakea 943 76 13 44

Angiozarko medikua 943 76 50 07

Antzuolako medikua 943 76 62 27

### GARRAIOAK

Euskotren 943 45 01 00

PESA 902 10 12 10

Taxiak 943 76 16 50

RENFE 943 28 55 55

### UDALA

Udaletxea 943 77 91 00

Udal Artxiboa 943 77 91 00

Igerilekuak 943 76 20 53

Kultur Etxea 943 77 91 55

Liburutegia 943 77 91 55

Mizpirualde Egoitza 943 76 13 00

### BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 00

Erregistroa 943 76 13 00

Jardun 943 76 26 00

Jubilatuena Etxea 943 76 21 44

Postetxea 943 76 25 00

# zorion agurrak



**Aitor Oregi**  
Otsailaren 21ean  
8 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Teresa Gallastegi**  
Otsailaren 23an  
8 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Iker Coranti**  
Otsailaren 21ean  
16 urte. Urte askotarako!  
Lehengusua eta gurasoak.



**Rosendo Perez**  
Otsailaren 19an  
68 urte.  
Urte askotarako!  
Ilobak.



**Pegerto Blanco**  
Otsailaren 21ean  
48 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Elaia Iñurrategi**  
Otsailaren 25ean  
15 urte.  
Urte askotarako!  
Amilotzeko lagunak.



**Jon Ander Perez**  
Otsailaren 20an  
urtebete. Urte askotarako!  
Maialen eta gurasoak.



**Ladis Perez**  
Otsailaren 25ean  
urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Ilobak.



**Nerea Jauregi**  
Otsailaren 24an  
32 urte.  
Urte askotarako!  
Amilotzeko lagunak.



**Jimena Zaldunbide**  
13an 19 urte. Urte askotarako!  
Lehengusua.



**Josefina Molina**  
Otsailaren 22an  
urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Jone Agirrezabal**  
Otsailaren 19an  
5 urte. Urte askotarako!  
Garazi, ama eta aita.



**Angel Gabilondo**  
Otsailaren 23an  
urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Alaba eta amaztea.



**Sergio Gonzalez**  
Otsailaren 19an  
9 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Ander Narvaez**  
Otsailaren 19an  
8 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Josu Gantxegi**  
Otsailaren 20an  
urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Sonia Gimbert**  
Otsailaren 21ean  
24 urte.  
Urte askotarako!  
Familia eta Karlos.



**Loli Gimbert**  
Otsailaren 21ean  
26 urte.  
Urte askotarako!  
Familia eta Iñaki.



**Jabier Roige**  
Otsailaren 19an  
urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Lagunak.



**Eukene Baztarrika**  
Otsailaren 22an  
6 urte.  
Urte askotarako!  
Kalegoi 23koak.



**Amaia Longares**  
Otsailaren 20an  
urtebete. Urte askotarako eta muxu handi bat! Etxekoak.



**Nekane Ezkurra**  
Otsailaren 22an  
4 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Arantxa Lizarralde**  
Otsailaren 21an  
urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Kalegoi 23koak.



**Nerea Azkarate**  
Otsailaren 24an  
21 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.

**URTEURRENA**

## Ignacia Luarizaristi Mujika

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailak 21, eguerdiko 12:30etan, San Pedron.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*




**URTEURRENA**

## Jesus Oroiz Leonardo, "Mondrague"

Lehen urteurreneko meza domekan, otsailak 21, eguerdiko 12:30etan, San Pedron.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*



**URTEURRENA**

*Berrigara 357an, OTSAILAREN 26a eta MARTXOAREN 4a bitartekoan zorion agurrak argitaratuko dira.*

■ hildakoak

**BERGARA**  
**Estefania Urriategi Ariznabarreta**  
Otsailak 13, 87 urte  
**Luis Elguero Losada**  
Otsailak 14, 80 urte  
**Nikolas Larrañaga Arana**  
Otsailak 17, 96 urte

■ jaiotakoak

**BERGARA**  
**Mikel Leonet Alonso**  
Otsailak 5  
**Jon Merino Paredes**  
Otsailak 6  
**Xabier Merino Paredes**  
Otsailak 6  
**Nagore Uribesalgo Sanchez**  
Otsailak 7  
**Maddi Basterra Fdez. de Jauregi**  
Otsailak 8



**Miguel Lizarralde**  
Otsailaren 20an  
urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Eider Monkaiola**  
Otsailaren 21ean  
urtebete.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Maialen Odriozola**  
Otsailaren 24an  
7 urte. Urte askotarako!  
Gurasoak eta Nerea.



**Ramon Eguren**  
Otsailaren 23an  
urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Xabier Etxeberria**  
"Bizkalatxa"  
22an 23 urte. Urte askotarako!  
Botitxeli koadrilakoak.



**Ion Arrese**  
Otsailaren 23an  
9 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



**Raquel Molina**  
20an 18 urte. Urte askotarako!  
Etxekoak eta Osintxu lagunak.



**Julen Rodriguez**  
Otsailaren 25ean  
2 urte. Urte askotarako eta muxu bat!  
Aitaxo eta amatxo.

## ANTZERKIA

► **Eibarko XXII. Antzerki Jardunaldiak:** astelehenean eta martitzenean, 20:30etan, Salvador Collado Konpainiaren "Un espíritu burlon" eta eguaztenean, ordu berean, La Zaranda taldearen "Cuando la vida eterna se acaba". Unibertsitate Laboralean.

## MUSIKA

- **Purr** taldea gaur, eguakitz, Infernokuan, gauerdian.
- **Ruper Ordorika** Elorrioko Arriolan gaur, 22:30etan.
- **Udo eta Vanize** taldeak bihar, zapatua, 22:00etan Jam aretoan.
- **Benito Lertxundi** bihar, zapatua, Arrasateko Amaian, 22:30etan.
- **PDK-2** jazz taldea eguenean, hilak 25, Sorauluzeko Gaztelupen, 22:00etan.

## ERAKUSKETA

► **Mikel Murgizuren** "Vientoslocos. Coñi" argazki erakusketa Nahikari tabernan.

## DANTZA

► **Urbeltz Dantza Ganbara** otsailaren 26an, 22:30etan Oñatiko Gaztelekuan.

## ANTZERKIA

### Txio-txioka

**Noiz:** zapatuan, 18:00etan  
**Non:** Novedades aretoan  
**Sarrera:** 200 pezeta

Taun-Taun Teatroak, helduei ez ezik, bereziki haur eta gaztetxoei zuzendurik dagoen "Txio-txioka" azken lana eskainiko du bihar Novedades aretoan. Bernardo Atxaga idazle ezagunak 1990eko hamarkadaren hasieran idatzitako "Txitoen istorioak" izeneko ipuinean oinarritu dira Taun-Taunekoak oraingo honetan. Lan berri honetan Itxaso Azkaratek, Karlos Odriozolak eta Iñaki Matak hartzen dute parte eta, horrez gain, ohiko kolaboratzaileen laguntza izan dute; besteak beste, Miel Ibarzabalek eta Ikimilikiliklik taldekoek egin dituzte txotxongiloak, Xabi Labaie- nek musika nahasketak, Santi Ezkurra dugu argi eta soinu teknikaria eta Miren Urkijo izan da testua antzerkirako egokitu duena. Ikuskizuna egiteko teknika ezberdinak erabili dituzte Taun-Taunekoek, besteak beste

mopet, zuzeneko manipulazioa, gerizpeak edo argi beltza. Azken hau lehen aldiz erabili dute eta ikusleagoak asko apreziatuko duen teknika ikusgarria da.

"Txio-txioka" ikuskizun bisuala da eta bertan zineaz maiteminduta dauden hiru txitoen gorabeherak kontatzen dira. Pelikulak izugarri gustatzen zaizkie eta behin, izebarekin direla, ihes egingo dute etxetik zinera joateko. Zinean 1903ko "El gran asalto al tren" filmea (ikuskizunaren ardatzetako bat) ikusten ari direla izeba eta aretoko akomodadorea txitoen bila joango dira eta sekulako iskanbila sortuko da. Hala ere, txitoek zine pantailatik irtengo den pertsonaia baten laguntza izango dute, Woody Allen-en "La rosa purpura de El Cairo" filmean gertatzen den antzera.



Taun-Taunekoak Gabonetan Gartzelan eskaini zuten emanaldian.

## IKASTAROAK

► **Arrasateko Udaleko Gazte Zerbitzuak** honako ikastaroak antolatzen ditu: irratikontrola, argazkigintza, euskal dantzak eta Karibeko dantzak. Argibideak eta izen-ema-

tea 943 77 00 65 zenbakian.

## LEHIAKETAK

► **Jarduneko Gazte Taldeak txorimalo lehiaketa** iragarri du Erramu Zapaturako, martxoaren

27rako. Nahi duen edonork parte har dezake, bakarka nahiz taldeka (gehienez 8 pertaide talde bakoitzeko). Hiru talde bereiztuko dira: 14 urteko beherakoak, 15-60 urte bitartekoak eta 60 urtetik gorakoak. Izen ematea Gartzelan martxoaren 24ra arte zabalik.

**iRUDI**  
 Erlojudenda  
 Bitxitegia  
 Ibargarai 2  
 943 6 51 65

**ZABALA**  
 JATETXEA • OSTATUA  
 Labegaraieta, Ibarra 14  
 BERGARA.  
 Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

JAUNARTZEAK,  
 EZKONTZAK, BATAIOAK,  
 KINTOENTZAKO  
 BAZKARIAK...  
 Igandeetan zabalik  
 enkargatuz gero

**KONDE**  
  
 Burdinate 1  
 ☎ 943 76 02 57

► **Arrasateko AED** elkarteak iguinen, poesien eta bertso paperen lehiaketak deitu ditu. Lanak jasotzeko epea otsailaren 26an bukatuko da. Argibideak: 943 77 12 28.

► **HIES Ekimena** taldeak "HIESa edo sexu segurua" gaiaren inguruko komiki lehiaketa deitu du. Lanak entregatzeko epea martxoaren 1ean bukatuko da. 943 79 26 99.

## DEIAK

► **Hitzaldia.** Komite Internazionalistak taldearen eskutik, Clara Murgialdaik "Ertamerikako emakumeak 1990ko hamarkadan" izenburuko hitzaldia emango du egueztenean, 19:30etan Kultur Etxean.

► **Odol ateraldia** eguaztenean 18:30etan Seminarioan.

► **Juan Antonio Sarasketa** ADECApeko presidenteak e hizaren inguruko hitzaldia eman go du eguenean, hilak 25, 19:30etan Gure Ametsa elkartean. Ondorengo afarirako izen-ematea (2.500 pezeta) astelehenera arte zabalik.

► **Artate** elkarteko bazkideen ohizko batzarra zapatuan, hilak 27, 16:00etan. Gauean, 21:00etan, Lizaso eta Sorozabal bertsoariekin **bertso afaria**. Izen-ematea (2.500 PTA) Arranon eta Kortazarren.

► **Mendi irteera Larrea-**

**Artia-Araotzera** otsailaren 28an, 7:30etan Frontoitik. Alpino Gorlak eta Pol-Polek antolatuta. Izen-ematea Pol-Polen, 943 76 48 51 zenbakian.

► **Deba Garaiko Abelazle Elkartearen** Ohiko Bilkura Orokorra martxoaren 7an Arrasateko Udaletxean: 11:30etan lehen deialdia eta 12:00etan bigarrena.

► **Ingurugiro astea** Oñatin. Astelehenean, hilak 22, Alfonso Aranda biologoak "Zaborra: konpondu beharreko arazo" gaia aztertuko du; martitzenean Migel Mari Elozegi biologoak basapiztien populazioaren igoerari buruz jardungo du eta, eguaztenean, Aizkorriko Parke Naturalaren gainean mintzatuko da Iñaki Aizpurua ingurugiro teknikaria. Hitzaldiak Olakua auzoko Natur Eskolan izango dira, 19:30etan.

## OHARRAK

► **Mariaren Lagundiak**, aurtentzen ospatzen duen 200. urteurrenari begira antolatutako ekitaldien artean, argazki erakusketa egin nahi du. Ikastetxearekin zerikusia duten argazkiak dituztenei erakusketan laguntzeko dei egiten zaie.

## KINTADAK

► **1946an jaiotakoen afaria** martxoaren 13an Tartufo jate-txean. Izen-ematea Tartufon, 943 76 35 51 zenbakian.

## Z I N E A

### KARTELDEGIA

#### BERGARA. Novedades

##### La niña de tus ojos

Eguakitza: 22:30.

Zapatua: 22:30.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30.

Martitzena, ik. eguna: 19:30.

##### A los que aman

Eguena, zine-kluba: 20:00.

#### ARRASATE. Alai zinema

##### La hora de los valientes

Eguakitza: 22:00.

##### Enemigo publico

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.

Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

#### EIBAR. Unzaga

##### Quedate a mi lado

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.

Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztana, ik. eguna: 19:30, 22:15.

#### EIBAR. Rialto

##### Entre las piernas

Eguakitza: 22:15.

Zapatua: 19:00, 22:15.

Domeka: 19:00, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

#### OÑATI. Santana

##### Very bad things

Eguakitza: 22:30

Zapatua: 19:30, 22:30

Domeka: 22:30.

Astelehena: 20:00.

##### Hana-bi

Eguena, zine-kluba: 20:00.

#### ELORRIO. Arriola

##### The rounders

Zapatua: 22:30.

Domeka: 20:00.

Astelehena: 20:00.

##### El silencio de los palacios

Eguena, zine-kluba: 20:15.

### LA NIÑA DE TUS OJOS

**Zuzendaria:** Fernando Trueba.

**Aktoreak:** Penelope Cruz, Antonio Resines, Jorge Sanz.

Aurtengo Goya sarietan irabazle nagusia suertatu da Truebaren filmea, besteak beste, filme onenaren eta aktorea onenaren (Penelope Cruz) sariak eskuratuz. Gerra Zibilaren garaian, aktore talde bat Berlinera bidaliko dute bertan, nazien laguntzaz, *La niña de tus ojos* andaluziar musikalaren bertsiio zinematografikoa errodatzera. *Macarena Granados* (Cruz) tonadillera da erreperto buruan.



### A LOS QUE AMAN

**Zuzendaria:** Isabel Coixet.

**Aktoreak:** Patxi Freytez, Olalla Moreno, Monica Bellucci. Julio Nuñez medikua (Patxi Freytez) gazte batekin maiteminduta dago baina neskaik beste gizon bat maite du eta honek berriz beste emakume batekin egiten du amets... Amodioaren korapiloei buruzko filmea egin du Isabel Coixetek (*Cosas que nunca te dije*), istorioa joan zen mendean girotuz. Albert Pla musikaria zoro baten paperean.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

## AGOITZ Tapizdenda

Leizoriako San Lorentzo 25  
BERGARA  
Tf.: 939 84 57 47



## KORTA-ZAR Txokolategia

Pintxo eta ogibitartekoen  
espezialitatea

Barrenkalea 16 ☎ 943 76 20 62

A  
R  
R  
A  
N  
O



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

**Martxoaren 19an Korrikaren edizio berria abian jarriko da Iruñean. Aurtengoa Korrikaren 11. edizioa izango da eta, "1+1= Hamaika. Zu eta ni euskaraz" lemapean, arlo ezberdinetan euskararen alde lan aipagarria egin duten erakundeak omenduko dira aurten. Kristina Markinak euskararen aldeko maratoiaren nondik norakoak azaldu dizkigu.**

**G.** Zenbat lagun ari zarete Bergarako Korrika Batzordean lanean?

**E.** Orainoz bilera bakarra egin dugu eskoletako ordezkariekin eta Txapa Irratia, EHE eta Jardun Elkarteke kideekin. Herri batzuetan batzordeak dena antolatzeaz arduratzen dira baina Bergaran ez dugu oraindik dinamika hori lortu. Korrika pasatuko den egunerako kilometro bana-keta, bakoitzak lekukoa non hartuko duen finkatzea eta horrelako lanak izaten dira.

**G.** Noiz etorriko da Korrika Bergarara?

**E.** Datorren martxoaren 24tik (eguztzena) 25erako gauerdian pasatuko da eta Bergaran 9 kilometro inguru egingo ditu. Kilometro bakoitzaren prezioak gora egin du eta 40.000 pezetan salduko da. Hala ere, aurreko edizioetan bezala kilometroak beste elkarte batzuekin konpartitzeko aukera izango da. Orain bi urte oso erantzun ona jaso genuen.

**G.** Korrika Kulturalak ere protagonismo nabaria izango du...

**E.** Eskualde mailako ekitaldirik garrantzitsuenak martxoaren 6an Arrasateko Kiroldegian antolatuko den kontzertua izango da. Zea Mays, Dantzut eta Kashbad

KRISTINA MARKINA  
Akulu AEK Euskaltegiko irakaslea

## *"Euskarak gizartean izan dituen lorpenak nabarmenduko dira aurtengo Korrikan"*



Aurtengo Korrika martxoaren 24ko gauerdian iritsiko da Bergarara.

taldeak eta Anari eta Labrit Zabala kantariak izango dira bertan eta talde guztietako abeslariak emakumeak direnez, martxoaren 8ko ospakizunekin lotuko da kontzertua.

Bergaran, berriz, tabernetan ekitalditxo batzuk antolatzeko asmoa genuen baina azkenean ez dugu nahi beste dirulaguntza jaso

eta bi ekitaldirekin konformatu behar izan dugu; alde batetik datorren eguakitzaren, hilak 26, ipuin-afarian izango da Infernukua tabernetan eta, bestetik, martxoaren 11n "Sexualitatez jardunean" izenburuko mahai-ingurua Luis Alberdiren eskutik Arranon. Bukatzeko, umeendako "klarionada" egin nahi dugu, umeek, helduen laguntzaz, marrazkiaz egin ditzaten Plazan. Horretarako kolorezko klarionapakete bat banatuko zaie.

**G.** Zeintzuk dira Korrikako nobedade nagusiak?

**E.** Orain arte Korrikako edizio guztietan pertsona bat omendu izan da. Duela bi urteko Korrikan, esate baterako, Aita Villasante euskaltzainak egindako lana nabarmendu zen. Aurten, ostera, aukeraturako leloari jarraituz, 11 izango dira omendutakoak. Banako lan askorekin hamaika aurrerapausu eman direla adierazi nahi da eta hori dela eta euskarak gizarteko arlo ezberdinetan izan dituen lorpenak destakatu nahi dira. Beraz, kultura mailan, teknologia arloan, irakaskuntzan, kirolean eta beste hainbat arlotan euskararen alde lan aipagarria egin duten pertsonak omenduko dira eta testigua eramatearen protagonismoa arlo ezberdinek izango dute.

**G.** "Bai euskarari" kanpainak zelako eragina izango du aurtengo Korrikan?

**E.** Teorian eragina eduki beharko luke. Bai euskarari jendearen konpromisoa pizteko balio izan du eta orain aukera ona da konpromiso hori praktikara eramateko. Dena den, Bai euskarari kanpainako batzordean ere egon naiz eta ez dakit kanpaina hori guzti mesederako izango den edota jendea ez duen piztatu erre. Ikusiko da. ■


**"Bai euskarari kanpainak konpromisoa pizteko balio izan du. Konpromisoa praktikara eramateko orain da aukera"**



# Labegaraietako biltegi zaharrean erakustoki iraunkorra jarri nahian

## Eguren tailerreko makineria zaharra bertan kokatu nahi du Udalak

Eguren tailerreko makinariarentzat kokapen berria aurkitu nahi du Udalak. Ibigarrai kalearen garapen urbanistikoak behartuta, Eguren tailerra bota egingo da eta bertako makineriak ondare industrialaren ikuspuntutik balio handia duenez, Kiroldegi ondoan dagoen pabilioian kokatu eta erakusketa iraunkorra antolatzea da Udalaren asmoa.



Kiroldegi ondoko pabilioi zaharra berriztu eta bertan erakustokia egokitu nahi du Udalak.

Pabilioi zahar guztia birgaitu eta bertan, zati batean, erakusketa iraunkorra antolatzeko aurreproiektua eskatu die Udalak Berasategi arkitektoei. Aurreproiektua egina dago eta udal museo-ologoak bere oniritzia eman du. Gobernu batzordearen onospena ere jaso du, baina behin betiko proiektua arkitektoei eskatu aurretik, gaia Hirigintza, Obra eta Ingurugiro batzordean aztertuko da.

Zerrajerako fundizio arloko hareazko moldeen pabilioia, Kiroldegitik gertuen dagoena, Udalarena da. Gaur egun bi erabilpen ditu: alde batetik, Udaleko Gizarte Ongizate Departamenduak antolatzen dituen ikastaroak egiten dira. Bestetik, pabilioiaren zati handiena udal brigadak erabiltzen du. Bertan, neurri handiko materiala gordetzen da: farolak, bankuak, ur kanalizazioak egiteko hodiak, jaietako taulatuak, erremolkea,

sokamuturrarako hesiak... Hori kontutan hartuta, Eguren tailerreko makineriarekin erakusketa iraunkorra pabilioi horretan kokatzeko, udal brigadaren trasteak gordetzeko beste kokaleku bat aurkitu beharko luke Udalak.

### BALIO HANDIKO MAKINERIA

Eguren tailerreko makineria XX. mendearen hasieran eraikia da eta gaur egunera arte aldaketa gutxi izan ditu. Xabier Aranburu udal museo-ologoak dioenez, "bitxia da makinak lanean jartzeko mantentzen duen ardatz, polea eta korreen bidez egindako sistema. Beraz, balore handikoa da ondare eta industriaren ikuspuntutik". Hau guztia kontutan izanik, Udalak makineria

guztia erosi egin zuen 1996ean eta iaz bertako langilea izandako Balentin Larrañagarekin kontratua sinatu zuen.

### AURREPROIEKTUAN JASOTZEN DENA

Berasategitarrek egindako aurreproiektuan Eguren tailerreko makinak gaur egun udal brigadak erabiltzen duen biltegian kokatzea planteatzen da. Beraz, Ozaetako zubira ematen duen aldetik edukiko luke sarrera eta 25 metroko sakonera izango luke. Pabilioiaren sarrera-aurreko eremua urbanizatu egingo litzateke eta barruan harrera-gunea bat izango luke. Erakustokiak bi solairu izango litzuzke eta bigarren pisuan egokituko litzateke makina. Behean, hitzaldiak edota erakusketa

sinpleak antolatzeko gunea izango litzateke. Bi solairuak espiral formadun korredore batek eta eskailera batzuk lotuko litzuzke.

Aurreproiektua Eguren tailerreko makinak kokatzeko bakarrik egin dago eta ez da aurreikusitako Bergarako ondare industrialaren museo, erakusketa edo almazena kokatzea. Horregatik, udal museo-ologoak egoki ikusten du etorkizunean ondare industrialeko beste pieza batzuk bertan jarri nahi badira, erakusketa iraunkorraz gain, neurri handiko piezak gordetzeko beste biltegi bat egokitzea. Honela, etorkizunean erakusketaren anpliazioa egingo balitz, sarrera Kiroldegira ematen duen aldetik egin beharko litzateke, udal museo-ologoaren iritziz. **B**



Aurten ere pagoak, urkiak, aritzak e.a. landatuko dituzte herriko gaztetxoek.

ARTXIBOA

## Herriko gaztetxoek Zuhaitz Eguna ospatuko dute zapatuan

### 150 bat arbola landatuko dituzte San Martzialen

**Zapatu goizean** egingo da aurten Zuhaitz Eguna. Aurreko bi urteetan Pol-Pol iturriaren inguruan egin bada ere, oraingoan San Martzialgo kantinarene azpialdeko zelaietan landatuko dira arbolak.

Joseba Aizpurua Udaleko nekazal teknikariak adierazi digunez, "150 bat zuhaitz landatuko ditugu. Ohizkoa den bezala, hostozabalak: pagoak, urkiak, astigarrik, aritzak..."

Udalak aurten San Martzialen landatzea erabaki du: "Pol-Pol iturriaren ingurua nahiko betea dago eta beste toki batzuetan premia handiagoa dagoela uste dugu" diosku Joseba Aizpurua. Premiak Bergarako toki askotan egon arren, San Martzial aukeratu dute, bertaratzea errezagoa delako: "Lanak erraztea eta ahalik eta jende gehiena gerturatzea da helburua". Horretarako, autobusa antolatu du-

te goizeko 11:00etan autobusa geltokian. Landaketa egin ondoren, ogitartekoak banatuko dituzte.

Helburua, gaztetxoaren artean ekologiarenganako errespetua piztea eta ingurugiroa babesteko hezitzea da eta, horregatik, herriko ikastetxei egiten zaie aurten ere Zuhaitz Egunerako deia. Halere, edozein herritar agertu daiteke zapatuan San Martzialera arbolak landatzera.

**Etxanizen aldeko manifestazioa gaur, kartzelan 19 urte betetzen dituela eta**

**Jose Mari Etxaniz** atxilotu zutela 19 urte betetzen dira gaur, eguzkitza. Hori dela eta manifestaziorako deia zabaldu du gaurko, 19:30 etan San Martin plazan Amnistiaren Aldeko Batzordeak. Bestalde, Etxaniz bisitatzera joateko autobusa antolatu dute. Autobusa manifestazio ostean irtengo da. Etxaniz Puerto de Santamarina dago.

**Igerilekuetako taberna hartzeko eskariak aurkezteko epea egunerara arte**

**Eguenean**, hilak 25 amaitzen da pisinetako taberna errentan hartzeko eskariak aurkezteko epea. Aurreko deialdi eskaririk jaso ez zela eta deialdi publikoa egin da berriz ere Udalak. Lehenengoan, hilean 100.000 pezeta errenta eskatzen bazen ere, oraingoan hilean 75.000 pezeta errenta eskatuko da. Taberna itxita dago azken hilabeteotan eta Udalak lehen bait lehen zabaldu nahi du.

**GOXO-TOKI**  
Iraila 3. Tf. 943 76 12 35  
Martxategi 34. Tf. 943 76 23 37  
BERGARA



**zumelaga**

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA  
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



**MEMESA**

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

# Jaietan barrakak jartzeko kanposantu ondoko lursaila egokitzen ari dira

**Kanposantuaren ondoan dagoen lursailean, Martxiategi kalean, lanean ari dira Udaleko langileak.**



Joan zen astean hasi zituzten Kanposantu ondoko lursaila egokitzeko lanak.

Uren, estolden eta argien azpiegiturak egin eta zoruan asfaltua botako da. Honenbestez, 160 bat autorentzako aparkalekuak egokituko dira eta Pazkuetan barrakak bertan jarriko direnez, feriarientzako 5 elektrizitate hartune jarriko dira. Bestalde, kanposantuko argiteria ere hobetu egingo da. Lanen aurrekontua 17 milioi pezetakoa da.

Ibargarai kalean egiten ari diren etxeak eta Ertzain-

tzaren komisaldegi berriaren lanak dela eta, Pazkuetan barrakak jartzeko tokirik ez da izango. Azken urtee-

tan inguru hori izan da jaietako ferialekua eta zezen plaza ere bertan kokatu da. Arazoari irtenbidea aurkitu

nahian, kanposantu ondoko lursaila egokitzea erabaki du Udalak. Sasoi batean bertan jartzten ziren barrakak eta aurrerantzean ere Martxiategin kokatuko dira. Lanak maiatzerako amaitzea espero da.

Bestalde, zer gertatuko da jaietako zezen plaza portatilarekin? Zezenzaleak taldekoek oraindik ez dute zehaztu aurreko zekorketarik antolatuko den ala ez, baina edozein modutan ere, zezen plaza zaharra zegoen lursailean, Ninika loradenda aurreko aparkalekuan, jarri daitekeela komentatu da. Laister hartuko da honi buruzko erabakia. **B**

## ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A



Bularra eta azala mintzen duten ziriak




Haragia bularretakoan alboetan




Tirante eroriak edo azala estutzen dutenak




Bizkar desitxuratua



Bularretakoan azpitik irteten diren bularrak



Bular eroriak



*Honen konponbidea ORTO-LAGUNen daukazu*

*Hemendik aurrera bularretakoak neurrira!*



Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34

# Berrigara

356 zenbakia.  
1999ko otsailaren 19a.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**  
**Telefonoa: 943 76 03 97**  
**Faxa: 943 76 29 77**  
**Argitaratzailea: JARDUN Elkartea**

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate.  
**Erredakzioa:** Eneko Azkarate, Edu Mendibil, Aitziber Azkondo.  
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Uxue Zabaleta.  
**Harpidetza:** Nerea Lazpiur.  
**Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien, Mirari Alberdi, Maripi Laskurain.  
**Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkoroberezibar, Alex Labaien, Gorka Elortza.  
**Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.  
**Kolaboratzaileak:**

Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.  
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.  
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azala: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.  
Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntzaz:



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jaurlaritzako Kultura saila

## gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

### KARNABALAK MAKAL

Dezepzioa eraman dut aurtengo Karnabalekin. Azkenengo urteotan Aratustetako giroak behera egin du nabarmen eta astebukaera honetan, tamalez, gure artean mozerro kontuak indarra galtzen ari direla konprobatu izan dugu berriz. Pena. Bedelkarrek ere egin du azkenaldian Karnabalak indartzeko ahalegin txalagarrria baina herritarren partetik nahi baino erantzun es-

kasagoa jaso du ekimen horrek. Aurten behintzat nekez izango du Bedelkarrek ondoen girotutako taberna saritzea. Betiko lau taberna izan dira esfortzu handiagoa egin duten bakarrak eta guztiei eskerrak eman nahi nizkieke. Bedelkarrek saria eman eta Bedelkarreko tabernariak parte hartu ez, hor kontraesana. Taberna gehienetan disfraz janztearekin nahikoa zuten itxura. Eta batzuetan, hori ere ez.


Mozorrotzen garenok gero eta "martzianoagoak" omen gara. Tabernak izaten dira jai egunei etekin handiena ateratzen dietenak eta, elkartrukean, gauza gutxi eskaintzen dute. Prezioak igotzerako orduan azkar jokatzen dute, hori bai. Ea, bada, datorren urtean, guztion partetik, ahalegintxo bat egiten dugun Karnabalak Bergaran ez galtzeko.

M.M.E. NAN: 16.383.286



**LANKIDE BERRIA DAUKAGU** aste honetatik aurrera BERRIGARAN. Uxue Zabaleta (argazkian, eskuman) izango dugu aurrerantzean publizitate arduraduna, azken bi urteotan lan horretan jardun duen Kristina Romeroren ordean. Uxue Zabaleta bergararrak 24 urte ditu eta Enpresaritzatik ikasketak burutu ditu ETEOn. Publizitate kontuetarako berarekin jarri zaitzekete harremanetan. Lerro hauek aprobetxatuz, BERRIGARAN egindako lanagatik eskerrak eman eta lan berrian zortean on opa diogu Kristinari.

## tira biraka: bittor rodriguez



■ atrebentzia ezpada

## Epaile batek adierazi dabenez, etxeko lanek ahalegin handirik ez dabe eskatzen. Zein da zure iritzixa?



**Izar Oregi**

Etxeko lanek beste edozein lanen moduan ahalegin handia eskatzen dute. Ez nago ados epaile horren iritziarekin. Etxean laguntzen dut eta badakit zer den.



**Jose Ramon Leizeaga**

Etxeko lanek ez daude ondo baloratuta. Gure etxean biok egiten dugu lan eta lanak banatu egiten ditugu. Plantxa ezik gainontzeko guztia egiten dut.



**Emilio Fuente**

Lan handia eskatzen dute. Egunaren arabera lan gehiago edo gutxiago dago baina beti izaten da zerbait. Ahalegina baino dedikazioa dela uste dut.



**Maria Jesus Quintas**

Pasada bat iruditzen zait epailearen iritzia. Bera ipini beharko litzateke etxeko lanak egiten. Etxeko lanak behar bezala baloratu beharko liriateke.



**Migel Zuloaga**

Epailearen adierazpenak ez dira egokiak. Etxeko lanak biren artean egiten badira beti arinago egiten dira eta ez da ezer kostatzen. Lan hori ez dago baloratuta.



**Maria Teresa Ramos**

Hori esan duenak ez du inolako ideiarik. Lan hori ez dago baloratuta, ez da egon eta ez da inoiz egongo. Nik 8 ordu lan egiten ditut etxe batean eta lan gogorra da.

■ bai, esan!



Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi izanez gero, deitu 943 76 03 97ra. Identifikatu bariko mezurik ez da onartuko.

### PATINETEAREKIN IBILTZEKO PISTA

**Gorka Eguren eta Alex Molano** gazteak BERRIGARAKO erredakzioan bisitari izan genituen joan zen astean. Gorka eta Alex skaterrak ditugu eta patinetearekin ibiltzeko pista egoki baten beharra somatzen dute herrian. Biak ere kalean edo Poligonoko ikastolan aritzen dira patinetearekin jolasean baina askotan herritarren kexak entzun behar izaten dituzte. Hori dela eta U itxurako pista bat erreklamatzeko dute, orain urte batzuk Poligonon zegoenaren antzeko pista. Gorkak eta Alexek diotenez, Oñatin, Arrasaten edota Sorluzen badituzte pistak eta Bergarako gazteek ere eskertuko lukete patinetearekin ibiltzeko leku egoki bat.

■ ikuspuntua: **ainhoa lete**

## Gu ere kurduak

Beti erakutsi izan didate lagun urkoari aulkia uztea edukazio onekoa dela. Baina badirudi Espainia aldean ez direla gauzak horrela ulertzen. Ala, agian, aulkirik gabe gelditzeko beldurra izango ote dute?

Eusko Jaurilaritzaren erabakia dela eta ez dela, edozein bonbardaketa dagoenean baino arreta gehiago lortu dute kurduak astebetean. Eta ezagutaraztea gauza handia da hitzik gabeko herri batentzat, hizkuntza eskubiderik ere ez duen herri batentzat.



Baina badirudi batzuentzat hitza beste edozein arma baino beldurgarriagoa dela. Euskal Herrian bizi dugun egoera berriekin alderdi espagnolistak jokuz kanpo daude. Beraien betiko argudioak engainua eta gezurra izan dira, eta horrela jarraitzen dute oraindik ere. Ez dira inoiz aldatuko. Baina agerian gelditzen hasiak dira. Eta beraien joku zikina ankerkeriaz joango den zalantzarik ez daukat. Arrazonamendurik ez daukatenez, gezurra erabili behar.

Aznar jauna laister joan da Turkiako lehendakariarengana. Nahi duenean badaki mugitzen honek ere. Turkia herri lagunkoia omen da. Ederki asko ulertzen dira hauek.

Legeztatuta dagoen alderdi batetako buruak gartzelaratuak dauzkate; militanteak desagertuak; hizkuntza zapaldua; errefuxiatuak; komunikabideak itxiak... Herri zapaltzaile orok dauka antzekotasunak.


Euskal Herriak ere ondoegi ezagutzen du borrokaren mina. Minak irlandar, kurdu eta zapalduak diren nazioetako herritar senti erazten gaitu. Hiritarrok erantzuna eman behar dugu. Jakin dezatela herri bat gara. Elkartasunez beteriko herria. **B**

■ asteko menua: **ixaun jatetxea**

## Arkumea

### OSAGAIAK (9 laguentzat)

- 12 kilotik gorako arkumea
- Kelepario saltsarako (litroko botela betetzeko):
  - Ozpin apur bat
  - Baso erdi ardo zuri
  - Kopa bat patxar
  - Berakatz dexente
  - Ura eta gatza



JOXE MARI BERISTAIN  
Ixaun jatetxekoa

### PRESTAKETA

- Ikatzarekin sua egin eta txingarra prest dagoenean arkumea sutan ipini. Hasieran goi samarrean jarri, arkumea pixkanaka-pixkanaka erretzen joan dadin; erretzen doan heinean, poliki-poliki sutatik gertuago ipintzen joan.
- Arkumea bi ordu eta erdiz sutan eduki ondoren, ondo erreta dagoenean, kelepario saltsa gehitu.
- Oharra: arkumea erretzen dabilenarentzat oso garrantzitsua da botela bat txakolin alboan edukitzea.

■ adituen esanetan

## Presako txakurra

HUMBERTO NOGUEIRA, *albaitaria*

Presako txakurrekin izan diren istripuei gehiegizko tratamendua eman zaie komunikabideetan, horrelako kasuak beti egon izan direlako. Orain hilabete batzuk tratu txarrak jasaten zizuten emakumeei buruz berba egitea *modan* zegoen eta orain, berriz, badi-rudi presako txakurrei tokatu zaiela. Txakur arriskutsuak jabeek kontrolatu ezin dituzten guztiak izan daitezke. Dena den, badira suntsidura gaitasun handiagoa duten txakur arrazak, gizakiak borroka eta goardarako aukeratu dituelako. Orain helburu horiek manipulatu egin dira eta gertatu dena gertatu da. Aipatutako arrazak guztion ahotan izan

dira egunotan: rottwiller txakurrak, dogo argentinarrak, pit-bull txakurrak, presa txakur kanariarra edota Villano de Carranza deiturikoa. Txakur handiak eta ile gutxikoak dira.

Gaur egun edozeinek izan ditzake horrelako txakurrak baina normalean mutil gazteek dauzkate, indarra eta agresibitatea adierazi nahian. Aspaldian txakur hauek izateko *booma* gertatu da. Presa txakurrak eta bestelako txakurrak izateko jendearen erantzukizuna ezinbestekoa da eta arraza bakoitzak hezkuntza eta asistentzia maila bat esijitzen du. Jendea horrekin kontzientziatu beharra dago. ■

■ bergarako gordailutik

## ZAMA IKUSGARRIAK MERIDARA

Imanol Sorondo

**B**adirudi guda bat prestatzeko, edo gutxienez erne egoteko, bidaltzen dela zenbait tresna multzo hain handia; harrigarria da erronka. Elkorobarrutiatar Kristobal kapitainaren esku gelditzen da tresneria guztia eta urrutira, Meridara, eraman behar da. Baina esan dezagun lehenbailehen hori dion idatziak 19 orri dituela. Garraiatu beharrekoak hauek dira. *Abuztuaren 10ean, 1658. urtean*: 2.000 pala, 500 pikatxoi, 500 matxete, 250 aizkora eta guzti hauen muturrak edo heldukiak. Gainera, 4.400 ezpaten esku-babesak beren buru eta bukaerekin, eta 3.087 eskopeta bere muelleekin.

*Abuztuaren 14an*: 4.000 moskete eta bere ontziak, 4.000 sarde, 6.000 arkabuz (fusilak) bere ontziekin eta 4.000 pistola.

*Abuztuaren 15ean*: 1.000 karabina, ontzi eta guzti; 3.000 pistola eta bere zorroak eta ontziak (hauek 1.500); arkabuzen moduko beste 1.000 ale eta beraien bultzakiak.

*Abuztuaren 19an*: 2.640 atxur, 1.000 pikatxoi, 4.000 pala, 1.000 matxete, 480 aizkora, 480 aizkora txiki eta bere mutur edo kiderrak.

Den-denak gurdietan Meridara garraiatu beharrean, mandozain asko datoz; izenak ipiniak daude eta norgoak diren ere bai: batzuk ingurukoak, Arrasate, Durango, Bilbo, Amurrio, Agurain, Altsasu eta Tuterakoak, adibidez, eta besteak urrutikoak, Sigüenza eta Murcia, eta Toledo aldekoak eta Badajozen dauden Sere-na lurraldetakoak. Egun batean 10 gurdi ateratu dira, besteetan, 14 eta 17.

Nolako mugida, joan-etorri, ostatu, mando zaintze eta abar. Ziurrenik beharko zituzten gudariak gurdia eta mandozainak bidean zaintzeko. Badi-rudi Elkorobarrutia Kapitaina bergararra zela eta, esaten ez badu ere, gure herrian tajutu zutela garraioa; tresnak berriz, bertan eta inguruetan eginak izango zirela. ■

Bergarako

Orkestra  
sinfonikoa

## Orkestraren anagrama

**Dani Laskurain** margolariak **Orkestra Sinfonikoa** deitutako logotipo lehiaketa irabazi du. Lehiaketara **16 lan** aurkeztu ziren eta Orkestrako musikoek beraiek aukeratu zuten Laskurainen logotipoa. Danik irripartu agertzen den kortxea bat aurkeztu zuen, alaitasuna, musika eta gaztetasuna islatu nahirik. Aipatutako lan horregatik 25.000 pezetako saria jaso du Danik. Mariaren Lagundiaren 200. urteurreneko logotipo lehiaketa ere berak irabazi zuen joan den uztailen.



## “Hertzainak” Bergaran

**Euskal Telebista**k Bergaran kokatutako telesail berria emitituko du aurten: **“Hertzainak”**. Hori dela eta, **Tentazioak** produktorako **Aitzpea Goenaga, Olatz Beobide eta Aitor Vitoria** Kultur Etxean izan genituen aurreko astean, telesailen agertzeko interesa duten bergarrei kamara aurreko probak egiten. 100 lagun inguruk hartu dute parte kastingean. Telesaila martxo bukaeran hasiko da grabatzen eta aktore nagusiak, besteak beste, **Jose Ramon Soroiz, Joseba Apaolaza eta Mireia Gabilondo** bergarra izango dira. Bitartean, kastingean parte hartu zutenak telefono deia zain izango dira...



## Txinoen txapelketa

Matxiategiko koadrila betek antolatuta, hiru garren urtez jarraian, **txino jokoaren txapelketa** jokatu zen eguakitzean Aralar tabernan. Guztira, **37 lagun** izan ziren lehiaketa eta partidak banaka jokatu ziren. Giro onean ordu eta erdiz jokoan aritu ondoren, **Igor Castellano** suertatu zen garaile eta ondoren **Antonio Ot eta Julio Vicente** (biak argazkian **Manolo Tejadarekin**) sailkatu ziren. Emakumezkoetan, **Fati Verak** bigarren aldiz lortu zuen garaipena, **Siri Wan eta Lurdes Cobosen** aurretik. Txino jokoak baditu jarraitzaileak oraindik...




## Paula Gallastegik 100 urte

**Paula Gallastegi Gabilondok 100 urte** beteko ditu bihar, zapatua, **otsailaren 20an**. Paula (**Jose Pildain**en alarguna) **Angiozarren jaio zen 1899an** eta gaztetan Bergarara etorri zen bizi izatera. Joserekin ezkontan ondoren, bi alaba izan zituzten, **Karmen eta Juli**. Gaur egun **9 biloba** eta beste **13 birbiloba** dauzka. Bere alabetako batekin bizi da Paula eta, osasun arazoak medio, azken 10 urteotan ez da kalera irten. Bihar familiartean ospatuko dute Paularen 100. urtebetetzea. Bazkari eder batekin eta hain gustoko duen ardo on batekin ospatuko du Paulak bere lehen mendeurrena. Zorionak!!




# Rioko karnabalak

**Rioko karnabaletan** jendea bilutsik ikusi dugu egun hauetan telebistatik enbidia apur bat eman digu hango giro epelak. Hemen zero azpitik izan ginen patuan, baina parrandarako eta mozorrotzeko gogoia nagusitu zen, argazkiak kisi besterik ez dago. Martitzenean, jende gutxiago ibili zen gauean, baina antzonaldean kolorez apaindu zituzten kaleak eskoletako haurrek. **Bedelkarreko** tolatutako lehiaketan, bestalde, hemen gainean **sanbero jantzita** ikusi dezakezuen taldeak eta **Maxim's** tabernak eraman dituzte sariak, 25.000 pezeta bakoitzari, Bedelkarreko jatetxe edo tabernetan gastatzeko.







# dira, baina...



# Txakurren zikinen arazoari irtenbideak

## Udalak animalien inguruko araudia landu du

**Txakurrek kalean lagatzen dituzten zikinen arazoari irtenbidea topatu nahian, animaliei eta bereziki txakurrei zuzendutako araudia prestatzen ari da Udala. Araudiaren zirriborroa prest dago jadanik baina indarrean jarri aurretik Udalbatzak onartu beharko du. Herritar asko kexatu izan dira azken hilabeteotan kalean aurki daitezkeen txakurren zikinengatik.**

Udaltzaingotik emandako datuen arabera, herrian 898 txakur daude gaur egun. Horiek txiparen bitartez kontrolatutako txakurrak dira baina beste horrenbeste izan daitezke txip-ik ez dutenak. Kalean aurki daitezkeen txakurren zikinek zeresan ugari eman dute aspaldian, herritar asko izan baitira Udaletxera jo dutenak arazoa salatzeko. Koldo Eleizalde, Espoloia, Ibargarai, Zurradero edota Kruz Gallastegi dira arazo hau sufritzen duten kaleetako batzuk. Alfonso Alonso Udaltzainburuak esan digunez, "gero eta txakur gehiago daude herrian eta horrek, normala denez, arazo hau areagotu egin du. Aspaldiko kontua da baina azkenaldian kexak ugaltu egin dira. Herriko kale, lorategi edo parkeen zikintasuna salatu du jendeak eta udal lorazainek ere beren haserrea agertu dute berdeguneetan lanean ari direnean kakaztuta amaitzen dutelako". Esan bezala, animaliei eta bereziki txakurrei zuzendutako araudia lantzen ari da Udala eta baliteke apirilera indarrean egotea.

Animaliak edukitzea eta babestea arautuko duen udal ordenantzaren zirriborroan, kaken arazoa saihesteko neurriak jasotzen dira, besteak beste. Era berean, faltaren bat egiten dutenentzat isunak zehazten dira. Aipatutako araudiaren zirriborroan, 30. artikuluan, txakurren zikinak kale, plaza, parke edota pertsonak ibiltzen diren bestelako lekuetan lagatzea debekatuta dagoela esaten da eta, horrela gertatutako balitz, txakurren jabea izango dela zi-

kinak kentzeaz arduratuko dena. Hori ez egitekotan, falta arintzat joko da eta Udalak isun batekin zigortu ahal izango du. Falta arinak (animaliek identifikaziorik ez izatea edota animaliei tratu iraingarria ematea tartean) 5.000 eta 50.000 pezeta bitarteko isunekin zigortuko dira araudi berria onartzekotan. Bestalde, espreski horretarako jarritako lekuetan edota arbolen txorkoetan txakurrek kaka egiteko aukera izango du-

tela jasotzen da aipatutako artikuluan. Dena den, Udaltzaingotik adierazi digunez, oraingoz ez dago txakurrek kaka egin dezaten leku konkreturik jartzeko asmoa, hainbat herritan pipi-can delako guneek erantzun eskasa izan dutelako.

### KONTAJIO ARAZOAK

Araudia egiteko kontsultatutako pertsonen artean Julen Narbaiza dago. Bere hitzetan, "Bergaran ez dago animalien ordenantzarik eta horren beharra dagoela ikusi da, udaltzainek babes le-gala izan dezaten zigorrak jartzerakoan. Arazo nagusietako bat higienez dagoela, txakurren kakena; herri guztietan dago arazo bera eta ez dago soluzio majikorik. Hala ere, gauza txikiak egi-





## Animaliak edukitzea eta babestea arautzeko ordanantzaren zirriborroan, kaken arazoa saihesteko neurriak jasotzen dira, besteak beste

nez has gaitezke, zikinak espaloian laga beharrean estolderia ingurura apartatuz adibidez. Higiene arazo hori zuzendu beharra dago eta horretarako sentsibilizazio kanpaina bat egitea ez legoke gaizki, txakurren jabeek zikinak batzeko boltsak banatuz, txakurrak ondo heziz edota informazioa banatuz. Hirietan txakurra izatea azken urteotako booma izan da baina jendeak jakin behar du txakurrak 14 bat urtez bizi direla, egunero euren beharrak egin behar dituztela eta txakur bat izatea ez dela merkea. Jende askok lehen aldiz dauka txakurra gaur eta gurean ez dago beste herrialde batzuetan dagoen animalien kulturarik. Baina garbitasuna nahiko errez zuzendu daiteke jendeak borondatea izanez gero". Bestalde txakurrek akabatutako haurren kasuak suertatu dira egunotan; "presako txakurren kasuan, araudi bat egon beharko litzateke horrelako txakur bat edozeinek ez izateko" diosku Julenek.

Roman Lazpiur albaitariak txakur kakekin kontajio arazoak izan daitezkeela esan digu. Romanen esanetan, "kaken erruz, txakur gaitza edo txakur kiste hartzeko arriskua egoten da. Gibelean edo biriketean agertzen diren kiste moduko batzuk dira eta noizean behin izaten dira horrelako kasuak. Soluzio bakarra ebakuntza izaten da eta gaitz horrek berdin afektatzen die haurrei zein helduei". Romanek animalien inguruko araudia beharrezkotzat jotzen du; "herri gehienetan dauzkate antzeko araudiak eta animalien gaineko edozein problematika argitzeko ondo etorfiko da. Kaken gaiarekin ez da bakarrik arazo estetiko konpontzen. Jaki-

nekoa da kalean kakak egotea txerrikeria dela eta, horrez gain, kontajio kasu posibleak neurri handi batean saihestuko dira etorkizunean. Hasiara batean zaila izango da jendea garbitzeko kontzientziaztea, batez ere edadetuak eta gazteak, baina piskanaka-piskanaka egoerak hobera egingo du".

### LEKU APROPOSIK EZ

Yoana Heiz gazteak duela 6 hilabetetik dauka artzai aleman txakurra; "beti izan dut txakurra izateko gogoia eta orain daukadana lehendabizikoa da". Yoana Bolun bizi da eta egunero txakurra paseatzera ateratzen du; "normalean Boni Laskurain pasealekura etortzen naiz eta txakurrak berdegunean egiten ditu bere beharrak. Niri ere gaizki iruditzen zait txakurrek kalean kaka egitea baina Udalak horretarako leku egokiak jarri beharko litzuzke. Behin baino gehiago-

Onartzean dagoen araudiak animalien inguruko problematikari aurre egiteko balio izango du.

Txakurrek ez dute parkera sartzetik (ezkerrean) gaur egun.

Goiko argazkian, gazte bat txakurrarekin Boni Laskurain pasealekuan.

tan arazoak izan ditut; Goiko Estazioan, esaterako, inguruko baserriarrek esaten dizute txakurrek inguruan kakarik ez egiteko, behiak bestela ez direla bazkatzen. Parkean ere ez dizute lagatzen txakurrarekin sartzen... Badago txakurren kakengatik protesta egiten duen jendea eta haurrek egiten dutenean ez dute ezer esaten. Haurrak ibiltzen ez diren berdeguneetan txakurrek kaka egitea ez zait gaizki iruditzen. Ni txakurrak lagatako zikinak garbitzeko prest nago baina Udalak ere soluzioak eman beharko litzuzke".

Pili Fernandezek ustez, txakurra izateak sakrifizio batzuk eskatzen ditu eta kaken arazoa hezkuntza arazoa dela dio. Orain dela 3 urte cocker txakur bat oparitu zioten Piliri; "nire gizonak txakur bat izan nahi zuen eta azkenean konbentzitu egin ninduen". Pili Labe-garaitan bizi da eta normalean Kiroldegiko ingurura edota Surra aldera eramaten du txakurra; "normala iruditzen zait jendea haserre egotea kalean txakur kakak aurkitzean. Nik ez diot lagatzen txakurrari espaloian kaka egiten eta hori egiten duenean painuelarekin jasotzen dut eta errepide ondoan laga, inori ez molestatzeko. Batez ere haurrak tartean direnean kontu handia izan behar da horrekin eta jendeak kakak jasotzeko ohitura hartzea besterik ez da behar. Kale garbitzaileek ez dute lan hori zertan egin". Piliren arabera Eibarren eta Elgoibarren irtenbide egokia topatu zioten arazo honi; "zentsatuta zituzten txakurren jabeek kakak batzeko palatxo bat eta plastikoak banatu zitzaizkien eta Bergarako Udalak ere antzeko zerbait egitea ondo legoke". **B**



# Labegaraietako futbito txapelketa

## partiduak

### ZAPATUAN BARRUAN

12:00: HHH-Agirrebeña Jatetxea  
13:00: Buya-Igandekoak

Igandekoak  
Agirrebeña

### DOMEKAN BARRUAN

09:30: Txipiron-Xurruapak  
10:30: Agiñaspi-Amilotx  
11:30: Ufala-Ari Ari  
16:00: Amozkibar-Mo(ko)lotov  
17:00: SLP-Ion Autoak  
18:00: Guadalest-Sirimiri Eri  
19:00: Moskis-Patxaran Team

Agiñaspi  
Ufala  
A Ze Flaxa  
SLP  
Guadalest  
Moskis  
Sirimiri Eri

### DOMEKAN KANPOAN

12:30: A Ze Flaxa-Bildurbarek Opel/Lam Ari Ari

## jokoz kanpo



ASIER LENISORO  
Buya

**G.** Nola joan dira 2. itzuliko partiduak?  
**E.** Nahiko motel. Azkenengo partiduak hobetotxo. Joan zen asteburuan lehendabiziko postuan dagoen Mo(ko)lotov taldeari irabazi genion. Oso ondo jokatu genuen.  
**G.** Tokatu zaizuen mailarekin ados zaudete?  
**E.** Bai...  
**G.** Zein postuan jokutzen duzu?  
**E.** Aurrean. Atzean egongo banintz gol asko sartuko lizkigukete.  
**G.** Joan zen denboraldian baino hobeto edo txarrago?  
**E.** Aurreko denboraldian gutxienez hirugarren mailan jokatu genuen.  
**G.** Taldeari puntuaketa 1-10era.  
**E.** Zazpi. Gutxiago esaten badut kua-drilakoek zerbait esango didate.  
**G.** Zer aldatuko zenuke txapelketatik?  
**E.** Ezer ez!!! Dagoeneko ahal zuten gutzia aldatu dute eta ez gara kopontzen arautegiarekin.  
**G.** Zenbat urte txapelketan?  
**E.** Bost. Lehen Aldoka-Maldoka ginen.  
**G.** Zein futbol taldetako zara?  
**E.** Real zale amorratua.  
**G.** BKEko jokalaria bat.  
**E.** Jon Ander Gallastegi eta Jokin Mendiaraz.

## gora eta behera



### Buya eta Ion Autoak

Buya taldea, laugarren mailako asteburuetan dabilen arren, lehendabiziko postuetan daudenei irabazteko gai izan da erakutsi du. Joan zen asteburuan lehen postuko Mo(ko)lotov taldeari 3-4 irabazi zion. Ion Autoak taldeak ere, maila berrira erakutsi zuen La Juve taldeari 3-1 irabaziz. Hau, aurrean ibili da azkenaldian.



### Usoak 3 puntu gutxiago

Usoa taldeari 3 puntu kendu dizkio. Arre-laketa Batzordeak partidua jokatzera ez agertzeagatik eta antolatzaileei ez satsatzeagatik. FACen kontra jokatu behar zuten partidua 3-0 galdutzat eman zuten.

## argi!

### Arbitratzeko puntualitatea

Antolaketa Batzordeak, arbitratzerako garaian ordutegia errespetatu beharra dagoela azpimarratu nahi du berriz ere. Asteburu honetan, Igandekoak taldea berandu iritsi da arbitratzera eta ondorioz bi puntu gutxiago izango ditu.

### Areto Futboleko zozketan saritua

Duela bi aste, Areto Futboleko taldeak bultzatzeko egin zen zozketan, lehen zenbaki saritua 367a izan zen eta bigarrena 213a. Lehen saria, Azpeitxi jatetxean bi lagunendako afaria, Mari Jose Morenok eskuratu zuen. Bigarrena, berriz, ez da oraindik azaldu. Azken sari hau eskuratzeko epea hilaren 28an amaitzen da. Sariturik agertuko ez balitz, beste zozketa bat egin beharko litzateke. Bigarren zenbaki saritua duenari, telefono haue-takoren batera deitzea eskatzen zaio: 943 76 46 06 (Jon) edo 943 76 50 00 (Pedro).

## emaitzak

Mo(ko)lotov-Buya	34
Igandekoak-SLP	44
Ortzi-Shaktale	53
Jauja OH Zerezos-Bildurbarek Opel/Lam	33
Ezinleike-Tom Cat Argandolas	33
Arbe Kirolak-Xurruapak	44
FAC-Usoa	34
Etengabe-Urrutxurtu	33
Ion Autoak-La Juve	31
Pinturas Bergara-Patatus	14
Komando Piperrak-Irubide Jatetxea	23
Ari Ari-Moskis	33
Mongatxurak-Bar Canalejas	64
Azpeitxi Jatetxea-Pagomendi	43
Bayer-Uve Bikoitza	33
Jakina Patxaran Team-Ufala	04
HHH-Matxakategi	23

## sailkapenak

### Lehen maila

	P	J
1. Azpeitxi Jatetxea	34	15
2. Errotagain	26	14
3. A Ze Flaxa Etxagi	23	13
4. Pagomendi	23	15
5. Ortzi	23	15
6. Bar Canalejas	20	15
7. Mongatxurak	17	15
8. Bildurbarek Opel/Lam	16	14
9. Jauja OH Zerezos	13	15
10. Shaktale	10	15

### 2. maila

	P	J
1. Bayer	16	6
2. Artusamak	14	6
3. FAC	15	7
4. Arbe Kirolak	11	7
5. Xurruapak	11	6
6. Ezinleike	9	8
7. Sirimiri Eri	8	5
8. Tom Cat Argandolas	8	7
9. Uve Bikoitza	4	6
10. Guadalest	3	6
11. Usoa	3	7
12. Txipiron	2	5

### 3. maila

	P	J
1. Moskis	16	6
2. Urrutxurtu	14	6
3. Ari Ari	13	6
4. Ufala	13	6
5. Irubide Jatetxea	10	6
6. Jakina Patxaran Team	9	5
7. Agirrebeña Jatetxea	7	5
8. Matxakategi	4	7
9. Komando Piperrak	4	7
10. Etengabe	3	6
11. HHH	3	7

### 4. maila

	P	J
1. Mo(ko)lotov	15	5
2. Amozkibar	13	9
3. La Juve	9	8
4. Igandekoak	8	8
5. Ion Autoak	8	8
6. Pinturas Bergara	7	7
7. Agiñaspi	6	6
8. Amilotx	6	6
9. SLP	6	6
10. Buya	6	6
11. Patatus	5	5

## kronikak


**Futbola  
Martxa  
onak  
dirau**

Bergarako preferente mailako eta lehen mailako jubenilek bakarrik jokatu zuten asteburuan. Bergaran jokatu zen partidu bakarra jubenilena izan zen eta mahonerok, beste behin, garraipena etxean geratzea lortu zuten. Gorka Zelaiaren mutilek 7-3 irabazi zuten Orioko taldearen kontra partidu bikaina jokatu ondoren.

Bergarrek lehendabiziko zatian egin zituzten gol gehienak. Talde bergararren protagonistak, Rollan bi golekin, Iñaki Mujika beste birekin, Altuna ere birekin eta Dovao gol bakararekin izan ziren. BKEko mutilek ezin hobeto hasi zuten liga eta horrela jarraituz gero primeran amaituko dute.


**Eskubaloia  
Aukerak  
ihes egin  
zuen**

Karnabalak zirela eta, Iraundi Bergara izan zen joan zen asteburuan jokatu zuen talde bakarra. Partidua, Zumarragako Urola taldearen kontra izan zen. Lijorenek ez zuten Arraten izandako zortea errepikatzerik izan, 29-25 galdu baitzuten Zumarragan. Horrek, Urolakoak lehen postuan izatera eta bergararrak laugarrenean jarraitzera eramandu.

Iraundi Bergarak ez zuen behar bezala jokatu. Lau minutu falta zirela, 26-25 zihozen markagailuan. Alde eskasa zegoen bi taldeen artean baina berdintzeko aukera ez zen aprobetxatu. Zapatuan, Lijorenak, Hernaniren kontra neurtuko dira.


**Saskibaloia  
Bolsos  
Bergara  
igoera fasean**

Duela bi aste amaitu zen saskibaloia ligako bigarren itzulia eta Bolsos Bergara taldeak igoera fasean sailkatzea lortu du. Alex Familiaren mutilek lau partidu galdu eta beste lau irabazi zituzten eta, ondorioz, lehen bost taldeen artean gelditu dira. Igoera faseko lehen partidua Arrasateren kontra izango dute.

Arrasateko taldea, Bergarako taldearen parean dago sailkatuta, lau partidu galdu eta beste lau irabazi baitituzte arrasatearrek ere. Printzipioz, indarrak parekatuta daude eta Bolsos Bergara taldeak ez du lesioak jota dagoen jokalaririk. Derbia Arrasateko kiroldegian jokatuko da zapatuan, arratsaldeko 17:15etan.

**ANTONIO MERINO / Antxintxikalaria**
**"Lokatzatan ondo moldatzen naiz"**

**Antonio Merino 14 urterekin hasi zen errepideetan korrika. Duela bi aste, Ezkio-Itsason jokatutako Euskadiko Txapelketan 2. postua eskuratu zuen eta Adidas taldearen babespean, Lisboan, korrikalari onenekin jardun zuen Europako Txapelketako 22. postua lortuz.**

**G.** Atsedena hartzeko garaia iritsi zaizu?

**E.** Denboraldia, Espainiako txapelketarekin amaituko da martxoan. Azken hiru asteburuetan hainbat tokitan aritu naiz baina laister lasaitzeko astia izango dut.

**G.** Dena dela emaitza onak lortu dituzu.

**E.** Ezkio-Itsason ez nuen bigarren postua eskuratzeko espero. Hiru hilabete egin ditut lesioekin eta lasterketari begira ez nuen behar bezala entrenatu. Nahiko ezkor nengoen baina azkenean ondo irten da. Lokatza handia aurkitu genuen baina horrelakoetan nahiko ondo moldatzen naiz eta horrek abantaila eman zidan.

**G.** Joan zen asteburuan Santanderren izan zinen.

**E.** Bai. Lasterketa nahiko gogorra izan zen. Neka-neka eginda amaitu nuen. Maila oso handia dago estatu mailan.

**G.** Egunean zenbat kilometro egiten dituzu?

**E.** Lau edo bost egunetan zehar, 16-20 kilometro inguru. Astebu-

ruan lasterketa bat baldin badago, lasterketa gerturatzen doan heinean kilometro gutxiago egiten ditut. Normalean Bergaran, Zumarragan eta Durangon aritzen naiz.


**KARTELDEGIA**
**FUTBOLA**
**Bergara-Pasaia**

Preferente maila

Zapatua. 16:15. Agorrosin

**Bergara-Aretxabaleta**

Infantil maila

Domeka. 10:00. Ipintza

**Bergara-Antoniano**

Neska

Domeka. 11:30. Ipintza

**ESKUBALOIA**
**Bergara-Goierri**

Jubenil mailako neska

Zapatua. 16:15. Kiroldegia

**Iraundi Bergara-Hernani**

senior maila

Zapatua. 17:45. Kiroldegia

**SASKIBALOIA**
**Bergara-Aloña Mendi**

Jubenil mailako mutilak

Zapatua. 17:30. M. Lagundia

**Bergara-Amigos**

del Baloncesto

Jubenil mailako neska

Zapatua. 16:00. M. Lagundia

**Bergara-Goierri**

Kadete mailako mutilak

Domeka. 10:30. M. Lagundia

**Bergara-Andraitz**

Kadete mailako neska

Domeka. 12:15. M. Lagundia

**PILOTA**

PROFESIONALAK:

**Euskal Herriko**

**txapelketako finalerdia:**

- Nagore eta Errandonea

Tirapu eta Armendariz

**Binaka:**

- Errandonea II eta Taberna

Agirre eta Imaz

**Banaka:**

- Nalda III-Pascual

Zapatua. 16:30. Pilotalekua

DEBA ARROKO TXAPELKETA:

**Bergara-Antzuola**

Kadete, jubenil

eta senior maila.

Martitzena. 19:30. Pilotalekua

# Lagunak areto futboleko neskak primeran

**Areto Futboleko** nesken taldea bigarren itzulia ari da jokatzeko. Dagoeneko hamahiru partidu jokatu dituzte eta sekulako maila erakusten ari dira. Azken lau jardunaldietan partidu guztiak irabazi dituzte. Zaldibi, Idiazabal, Aurki eta Zestoa izan dira gairak dituzten taldeak.

Adin mugarik gabeko txapelketan, Mikel Fernandezek zuzentzen dituen bergarar neskek txapelketako gazteenak dira. Taldearen batz besteko adina 13 urtekoa da. Saikapenari dagokionez, hamar partiduren faltan, bergararrak bedera-



Lagunak areto futboleko nesken taldea eta entrenatzaileak.

tzigarren postuan daude. Entrenatzaileak adierazi digunez, "poliki poliki neskek konfidantza handiagoa har-

tzen dihardute. Beldurra alde batera utzi eta Aurki taldea bezalakoei irabazten ari dira. Azken hau txapelketan

onenetariko bat dela esan dezakegu". Aurkik, joan zen denboraldian mailaz igotzen. Aurrekontu eskas zegoela eta, ordea, ezin izan zuten estatu mailako txapelketan jokatu eta, ondorioz, Euskal Herriko liga jokatzeko ari dira.

Bestalde, Bergara, Autonomi Elkartearen estatu mailako areto futboleko txapelketaren topagune izango dela aurreratu dezakegu. Tolosan, Urretxun, Oñatin eta Bergaran jokatuko dira partiduak. Bergaran, apirilaren 30ean eta maiatzaren 1ean jokatuko dira hain zuzen.

## ESKOLA KIROLA

### Karteldegia

#### ESKUBALOIA

ALEBIN MAILAKO MUTILAK  
**10:15:** M. Lagundia B-Antzuola  
**10:15:** Aranzadi 12-San Martin  
**11:15:** Aranzadi 10-Aranzadi 11  
**11:15:** Antzuola-San Martin  
**11:15:** M. Lagundia A-Elgeta  
**12:15:** Aranzadi 13-Aranzadi 8  
 ALEBIN MAILAKO NESKAK  
**12:15:** Aranzadi 15-Aranzadi 14  
**12:15:** Elgeta-Antzuola  
 (Atsedena Aranzadi 9 eta M. Lagundia)  
 Guztiak zapatuan M. Lagundian  
 INFANTIL MAILAKO MUTILAK  
**11:00:** Aranzadi-Almen  
 Zapatuan, Labegaraletan

#### FUTBOLA

INFANTIL MAILAKO MUTILAK  
**11:00:** Aranzadi-Antzuola  
 Zapatuan, Ipintzan  
**11:00:** Almen-M. Lagundia  
 Zapatuan, Almenen  
 INFANTIL MAILAKO NESKAK  
**10:00:** Aranzadi-Merced  
 Zapatuan, Ipintzan

#### ARETO FUTBOLA

KADETE MAILAKO MUTILAK  
**18:00:** La Salle 1-M. Lagundia  
 Eguakitzean, La Sallen (Eibar)  
**10:00:** Aldatze B-Aranzadi  
 Zapatuan, La Sallen

#### PILOTA

BENJAMIN MAILA  
**09:30:** Aranzadi 3, Aranzadi 4,  
 M. Lagundia D

**10:30:** M. Lagundia E, Aranzadi 1,  
 Aranzadi 6  
**11:30:** M. Lagundia A, Aranzadi 2,  
 San Martin A  
**12:30:** San Martin B, Aranzadi 5,  
 M. Lagundia B  
 Zapatuan, Zabalotaegiko  
 pilotalekuan

#### DEBA BAILARAKO PILOTA TXAPELKETA

ALEBIN MAILA  
 Aranzadi A-Mendaro A  
 Mendaro B-Aranzadi D  
 Zapatuan 15:30etan Elgoibarko  
 pilotalekuan. Irteera, Bergarako  
 Udal Pilotalekutik 15:00etan.  
 INFANTIL MAILA  
 Aranzadi A-Antzuola A  
 El Pilar A-M. Lagundia  
 Zapatuan 15:30etan,  
 Antzuolako Pilotalekuan

## Nesken futbito txapelketa martxoaren 6an

**Martitzenean** bildu ziren nesken futbito txapelketako antolatzaileak. Izena eman dutenak Nifits, Gu Geu eta Pozta Zapaburuak izan dira. Jende gutxi dagoenez, antolatzaileek jendea animatzea eskatzen dute. Martxoaren 6an emango zaio hasiera txapelketari. Izena talde gutxi eman dutela kontuan izanda, epea txapelketa hasi arte zabaldu izango da.



DEBA GARAIA  
 INMUEBLE ETA FINANZAZ  
 AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar  
**Telefonoz Aranzadi 2 behea**  
**943 76 21 80 / 943 76 06 37**

## ARREGI

Eraikuntza  
 materialak

Biltegia Tellerian, Labegaraletan.  
 Tf. 943 76 27 93

## PILI GISASOLA



Osasun eta Dietetikan  
 espezializatutako zentrua

Zurradero 2 behea.  
 ☎ 943 76 58 83

## ANTIA

HARATEGIA URDAITZEA

Txahal, idi, txerri, bildots,  
 untzi eta baserriko oilaskoak

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 00



## Amondarain


*Gure Ametsa etxea, Santa Luzia auzoa,  
Tolosa*

Telefona: 943 65 33 54.

Urtarriletik apirilera arte zabalik.

Bertako janaria, menua.

150 lagunentzako lekua.



## Laka-Erdi

*Miloi gaina 26,  
Markinatik Lekeitiora bidean*

## Berriatua

Telefona: 94 613 91 78.

Urte osoan zabalik.

Bertako janaria.

Lokal klimatizatua eta beheko sua.

Ezkontzak eta jaunartzeak enkarguz.

Autobusez joan daiteke.

Ziburuak eta poniak doan umeendako.

350 lagunentzako lekua.

# txotxetik edan sagardotegi onenetan



## Aulia

*Aulia Enea baserria, Legorreta*

Telefona: 943 80 60 66.

Abenduaren 13tik maiatzera arte zabalik.

Bertako janaria.

140 lagunentzako lekua eserita nahiz zutik.



## Otegi

*Solla Enea baserria, Lasarte*

Telefona: 943 36 50 29.

Urtarriletik apirilera arte zabalik.

Bertako janaria nahiz norberak ekarria.

150 lagunentzako lekua eserita.

**1. ETXEBIZITZAK**

**SALDU**

San Lorentzon pisua salgai. 943 76 21 63.

Osintxu. 943 76 49 74.

Osintxu. 939 93 68 41.

Pisu amueblatua Zubiaurren. 943 76 48 05.

Aranerreka. 943 76 06 52.

Aranerreka. 943 76 20 52.

Bolu. 943 76 01 80.

Martoko. 943 76 55 86.

Fraiskozurin pisua salgai. 943 76 15 40.

S. Lorentzo. 943 76 48 39.

Masterreka. 943 76 17 49.

**ERRENTAN EMATEKO**

Apartamentu amueblatua Espoioian. 943 76 55 26.

Apartamendua Zarautzen (abuztuan izan ezik). 943 76 42 05

**ERRENTAN HARTZEKO**

Pisua hartuko nuke alokairuan. 943 85 36 99.

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

**1. ETXEBIZITZAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**

Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**4. LANA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**

Eskaintzak  
Eskaerak  
Bestelakoak

**6. IBILGAILUAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**

Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**8. DENETARIK**

Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatu  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**

Agurrak  
Kontaktatuak  
Deiak  
Bestelakoak

**ETXE KONPARTITUAK**

Jendea behar da pisua konpartitzeko Bergaran. 943 76 71 93.

Etxe konpartituan gela bat hartuko nuke. 943 76 21 48.

Gela nahi nuke pisu konpartituan. 943 27 77 80.

**2. GARAJEAK**

**SALDU**

Garajea salgai Artza-mendin. 943 76 06 25.

Matzerreka. 945 23 48 07.

Aranerreka. 943 76 20 52.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Aranerreka. 943 76 28 07.

K.Gallastegi. 943 76 27 61.

S. Marina. 619 802 606.

B. Laskurain. 943 76 47 86.

Ibargarai. 943 15 15 81.

B. Laskurain. 943 76 17 84.

Ibargarai. 943 76 72 17.

Zubiaurren. Pisu bikoitza. 943 76 08 89.

**ERRENTAN EMATEKO**

Garajea alokairuan Poligonan. 943 76 32 58.

Ibargarai. 943 76 23 53.

**ERRENTAN HARTZEKO**

Garajea alokairuan hartuko nuke Zubietan. 943 76 47 50 (Jabi).

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

**3. LOKALAK**

**ERRENTAN EMATEKO**

Lokala S. Pedro kalean. 943 76 10 39.

Arte lanak egiteko lokal aproposa konpartituko nuke Arrasatetik gertu. 943 71 42 86.

**4. LANA**

**ESKAITZAK**

Neskak haurrak zaindu edo denda/bulegoan lan egingo luke.

943 76 26 82/76 57 34

Etxeko lanak edo haurrak zaindu. Esperientzia. 943 76 72 32 (Ara)

Neskak, goizez, haurrak zaindu edo etxeko lanak. 943 76 46 07.

Esperientziadun neska edadetuak zainduko lituzke. 943 76 32 16.

Neska edozein lanerako prest. 943 76 35 36.

Arratsaldez lan egingo nuke. 943 76 52 39 (Karme).

Erizain titulatuak gaurak, edadetuak edo haurrak zainduko lituzke. 943 76 37 99.

Jaiegunetan eta aste-bukaeretan tabernan lanak egingo nituzke. 943 76 36 14 (Igor).

Neskak etxeko edo eskolako lanak egingo nituzke. 943 76 70 15.

Esperientziadun neska goizez, haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo nituzke. 943 76 72 31.

**ESKAERAK**

Neska behar da egun osoz etxean laguntzeko

**Sugoi**

**ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua 2 behea  
☎ 943 76 59 54 BERGARA

**ARREGUI, E.M.**

**AROZTEGIA**

AROLAN MEKANIKOAK  
SUKALDEKO ARMAIRUAK  
HORMA ARMAIRUAK  
ATEAK, eta abar  
TARIMAK-PARKETAK  
NEOPRENOZKO JUNTADUN  
EGURREZKO LEIHOAK  
PVCzko LEIHOAK

Urteaga 20 ☎ 76 11 73  
Erakusketa: Bidekurutzeta 38

**PERTSONA GAZTEA**

**behar da taberna batean lan egiteko**

943 76 59 19

**Motora daukan mutil gaztea**

**behar da etxez-etxeko banaketarako**

Tf. 943 76 72 00  
11:00-15:00

**Deco-Textil ZANGITU**

Etxerako lentzeria  
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak  
Bisiloak, tapizak, eta abar.

**Herrilagunak 3-5**  
☎ 943 76 08 69



Iturkintza • Berogintza • Bainuak

**Laskurain**

Barrenkalea 35, BERGARA.  
Tf. 943 76 24 89



Gauzez, gizon bat zain-  
tzeko pertsona behar  
da. 943 76 13 23/76 57 69.

Pertsona edadetu bat  
zaindu eta etxeko lane-  
tarako emakumea be-  
har da. 943 76 39 61.

**5. IRAKASKUNTZA**

**ESKAINTZAK**

OHO eta BBB klaseak.  
943 76 33 26.

Ingeles klaseak.  
943 76 25 79 (Nuria).

Lizentziatuak enpresari-  
tza lehen mailako ma-  
tematika klaseak ematen  
ditu. 943 76 32 31.

Majisteritzako ikasleak  
OHOk klaseak ematen  
ditu. 943 76 37 94.

Ingenieritzan diploma-  
tuak OHO eta BBBko  
klaseak ematen ditu.  
943 76 70 44.

Majisteritzan diploma-  
tuak klaseak ematen  
ditu. Deitu 943 76 10 17  
telefonora (Rosa).

**6. IBILGAILUAK**

**SALDU**

Ford Scort 1100. SS-U.

Bolante deportiboa  
opari. 125.000 pezeta.  
943 76 39 57 (Julian).

Peugeot 306 (SS-AV)  
salgai. 943 79 78 32.

Ford Escort XR3 egoera  
onean. 943 71 44 45.

Citroen BX egoera one-  
an. 943 76 29 79 (Ion).

Golf GTI kotxea salgai.  
6 urte, egoera onean.  
608 77 17 32.

Alfa 33 QV (BI-AM).  
100.000 PTA. 943 76 07 50.

Renault 5 Turbo kotxea  
salgai. 943 76 38 84.

Honda CR motorra sal-  
gai. 250 cc. 9 urte.  
943 76 15 34 (Asier).

Ford Fiesta 1300 kotxea  
(SS-W) prezio onean  
salgai. 943 76 63 29.

Honda NSR 80 motorra  
salgai. 943 76 31 52.

**7. ANIMALIAK**

**SALDU**

Ardi txakurkumeak  
(arrak eta emeak).  
943 81 56 20.

Boxer txakurkumeak  
salgai. 943 76 40 73.

Bi artzai txakurkume  
opari. 943 76 35 58.

**BESTELAKOAK**

Hamsterkumeak salgai.  
943 76 53 38.

**8. DENETARIK**

**SALDU**

Opera eta kamara musi-  
ka CD bildumak salgai.  
943 76 58 05 (Juanje).

"Gernika"ren narrazio  
koadroa salgai (100x50  
cm). Interesatuek Arra-  
no tabernan galdetu.

Tresiloa, bi siloi eta  
egongelako mahaia  
prezio onean salgai.  
943 76 31 21 (13:00-  
15:30).

Sony irratia, Nad anpli-  
fikadorea eta Beyma  
bafleak salgai.  
943 88 73 13.

Pentium-multimedia or-  
denagailua, inpresora  
eta programak.  
907 34 46 58.

Bi oheko gazte logela.  
943 78 25 85.

"Mendiz" bizikleta.  
Shinmano 600.  
943 76 38 79.

150 litroko termo elek-  
trikoa eta bi akumula-  
dore. 943 76 44 96.

Ohe artikulatua. 90  
zm.koa. 943 76 20 90.

Errepideko bizikleta (8-  
12 urtekoentzat).  
943 76 72 17.

Teknigrafoa salgai.  
943 76 02 12.

Kotxeko bi gurgil berri  
155/70 haguekin eta  
orekatuak. 6.500  
pta.943 76 32 31 (Iñaki).

Jaunartzeko bi traje  
(marineroa eta neskatil-  
larena) saltzen ditut.  
Berriak. 943 76 14 70.

Sega Master Sistem 2  
kotsola (6 joku) salgai.  
943 76 47 82.


Jaunartzeko trajea sal-  
gai. 639 93 68 41.

**EROSI**

Faxa erosiko nuke  
prezio onean.  
943 76 08 19.

**GALDU**

Bi belarritako desberdin  
galdu ditut, zilarrezko-  
ak, Toki Eder eta Bolu  
artean. 943 76 52 39.



**Langai**

Euskal Lan Zerbitzua

**DELINEATZAILE  
PROIEKTUGILEA**  
Bilbo. 15870/4

**PROIEKTU  
ZUZENDARIA**  
Zamudio. 16886/3

**MANDRINATZAILEA**  
Donostia. 16433/6

**GALDARAGILEA**  
Donostia. 16439/5

**GARRAIOETAKO  
KOMERTZIALA**  
Bidasoa Behea.  
16485/2

**INFORMATIKA  
IRAKASLEA**  
Ibai ezkerrekoa.  
16526/6

**URBANIZAZIO ZAIN-  
TZAILEAK, 7**  
Kantabria. 16557/1

**BILTEGIZAINA**  
Zamudio. 16841/5

**SUKALDARIA**  
Burgos. 16905/0

**CADS-5eko LANGILE  
PROIEKTUGILEAK, 2**  
Donostia. 16953/0

**BANATZAILEA**  
Bilbo. 16102/3

**ILEAPAINATZAILEA**  
Bilbo. 16551/2

**GARRAIOEN  
KOMERTZIALA**  
Bidasoa Behea.  
16485/1

**MIKROMEKANIKARIA**  
Deba Behea. 16555/2

**SEGURTASUNEKO  
JAGOLEA**  
Durangaldea. 16645/3

**Lan eskaintza hauetakoren bat  
interesatzen bazaizu,  
erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta  
egukizetan 9:00etatik 13:00etara.  
Telefona: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

**Txandakako enpresa injinerutza**

**Enpresariekin lanean garatutako lanbide proiektua  
Lan kontratua lehen egunetik**

*Bilera informatiboa*

• Datorren otsailaren 26an, ostirala, bilera informatiboa  
izango da prestakuntzaren ezaugarriak eta sarrera baldintzak  
azalduko direlarik.

• 18:30etan Erreminta Makina Institutuko instalazioak bisitatuko  
dira eta 19:00etan bilera informatiboa hasiko da.

**1999/2000 ikasturtea**

■ Makina Erremintaren Institutua  
San Roke auzoa 1 20870 Elgoibar

■ Tf. 943 74 41 32 Faxa: 943 74 41 53  
E-mail: ingenieria@fmh.es

■ Ordutegia: 8:00etatik 13:00etara  
eta 14:30etatik 17:30etara



**cesi** aquitaine  
poitou-charentes

# Amodiozko gutunen lehiaketako sari banaketa

Sarituak kartak errexitatu zituzten Pako Aristi eta Mikel Markezen laguntzaz

**Amodiozko Gutunen VII. Berrigara Lehiaketako sariak banatu ziren joan zen domekan, San Balentin egunean, Kartzela Zaharrean. Aretoa bete egin zen Mikel Markez eta Pako Aristiren emanaldia eta lehiaketan saritutakoen karta-errezitaldia entzuteko.**

Pako Aristi idazleak eta Mikel Markez musikari eta kantariak, hitzak eta musika tartekatzen dituen "Tribuaren hitz galduak" eskaini zuten lehenbizi. Pakok, pianoaren aurrean jarrita, hainbat poesia errexitatu zituen eta Mikel, kitarra eskuan zuela, bere erreperitotik aukeratutako zenbait kantu eskaini zituen. Pako Aristik, pianoaz gain, gaita eta aho-soinua ere jo zituen.

Aristiren eta Markezen emanaldia-oren ostean sari banaketa egin zen. Lehenengo, irakurle gaztearen saria banatu zen. Garikoitz Garitano epai-mahai gazteko kideak, Adur Ezenarri eman



Ezkerretik eskumara, Josu Andoni Arenaza, Xabier Larrañaga, Jon Sanchez eta Roberto Izagirre.

zion saria, Xabier de Zerrioren eskultura; Garikoitz Berasaluzek, berriz, Bergarako onenarena (25.000 pezeta) eman zion Jon Sanchezi; Jasone Osorok eta Andoni Egañak, ostera, bigarren saria irabazi duten Josu Andoni

Arenazari eta Roberto Izagirri (25.000 pezeta), eta Jose Angel Mikeok, lehen saria (75.000 pezeta) Xabier Larrañagari.

Ekitaldiak bi ordu inguru iraun zuten eta aurkezle lanetan Eider Aranzabal eta Igor Larrañaga aritu ziren.


## Justo Garate bekarekin Mari Jose Olaziregik egindako liburua, "Euskal gazteen irakurzaletasuna", aurkeztuko da

**1995eko deialdian** jasotako Justo Garate bekaren laguntzaz egindako lana, Mari Jose Olaziregiren (Donostia, 1963) "Euskal Gazteen irakurzaletasuna" liburua, aurkeztuko da datorren eguakitzean 19:00etan Udaltexean. Bergarako Udalak bultzatutako bekaren orain dela lau urteko deialdian

euskal gazteen irakurketa ohiturei buruzko azterketa soziologikoa egin zuen irabazleak.

Mari Jose Olaziregik euskal gazteen irakurzaletasuna ezagutzeko ikerketa sakona egin zuen, bost urtean zehar, hainbat inkesta eta elkarrizketaren bidez. Ikerketaren arabera, neskek

mutilek baino irakurtzeko ohitura handiagoa dute eta, bestalde, gazteak adinean aurrera doazen heinean gutxiago irakurtzen dute eta gaztelerako joera erakusten hasten dira. Eskolan irakurtzen dute batez ere euskaraz. Gazte euskaldunen idazle gustokoena Bernardo Atxaga da.



Olaziregiren liburuen azala.

# ETXEBERRIA

**ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA**

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65



Amillaga, gasolindegi ondoan. Tf.: 943 76 57 34

# ZABALETAK ERROTULOAK

Mota guztietako errotuloak  
Fatxadak, eskaparateak...

## BERGARA EZAGUTZEN LEHIAKETA

Bigarren faseari ekingo diote gaur sei talde onenek; hiru kanpoan geratu dira



Epai-mahaikoekin eztabaidatan aritu ziren joan zen jardunaldian.

Joan zen eguakitzean jokatu zen lehen faseko azken jardunaldia. Lehen faseko hiru jardunaldiak jokatu ostean, hiru talde kanpoan geratu dira: Eztakit, Zerok eta Katamixartsua; beste seiak bigarren faserako sailkatu dira.

Bigarren faseko lehen jardunaldia gaur jokatu da. Gotxus eta Eli taldeek neurtuko dituzte indarrak elkarren kontra. Datorren astean Hik Galdeu eta Petu Petuan arituko dira Lehian eta hurrengoan Jotapurtu eta Errastisklas.

Joan zen astekoari buruz esan behar da Errastisklas izan zela onena (184 puntu) eta bere atzetik Petu Petuan (145) eta Katamixartsua (105) sailkatu ziren. Errastisklas hiru probetan nagusitu zen, hau da, galderetan, proba grafikoan eta kanpoko jokoan. Azken honetan hiru taldeek

asmatu zuten eta hogeina puntu lortu zituzten. Bestalde, bukaeran, lehen jardunaldiko taldeei kulturako galdera bat egin zitzaion. Ez zuten asmatu eta, beraz, ez zuten punturik batu.

### SAILKAPEN NAGUSIA

1. Errastisklas .....184 puntu
2. Hik Galdeu .....169 puntu
3. Gotxus .....151 puntu
4. Petu Petuan .....145 puntu
5. Jotapurtu .....133 puntu
6. Eli .....131 puntu
7. Eztakit .....127 puntu
8. Zerok .....116 puntu
9. Katamixartsua .....105 puntu

### 2. FASEKO LEHEN JARDUNALDIA

Gotxus (2 HSOL, Ipintza institutua)  
Eli (DBH 4, Aranzadi ikastola)

### erreseinak



Irizar, Bereziartua eta Etxeberría

**Erabateko sukaldia**  
Sukaldeko errezeta bilduma

Esparru ezberdinetan lan egiten duten hiru lagun elkartu dira sukaldaritzari buruzko liburu hau egiteko. Esparru ezberdinetan lan egin arren, janariarekin eta edariarekin lotura dute hirurek. Hasier Etxeberría kazetariak gai honen inguruko hainbat saiò egin ditu ETBn; Julian Bereziartua medikua, elikadura, sukaldaritzaren natura maisutasunez ezkontzarazten dituen liburuen egilea da. Eta Luis Irizar? Euskal Sukaldaritzaren nabarmendu diren sukaldari gehienen maisu. A-tik Z-ra, sukaldeko hainbat produkturi buruzko azalpena eta errezetak jasotzen ditu liburua.

- Ttartalo. 214 orr. 2.300 PTA



Caroline eta Mixel  
**Zatoz gurekin**  
Folk

Caroline Phillips eta Mixel Ducau bikoteak elkarrekin kaleratu duen bigarren diskoan, dozena bat folk kantuek eder aurki ditzakegu. Alaiagoak eta motelagoak; erritmo bizikoak eta denbora ertainekoak; Mediterraneoak bustitzen dituen herrialdeetako soinuk eta Zuberoako soinu herrikoikiak... Mikel Markez, Jon Iñaki Isazelaia, Xabier Amuriza eta Kepa Akiok idatzitako testuak, Caroline-ren ahots garden eta sakonak abestuak eta Luis Camino edo Joseba Tapia bezalako musikoek lagunduta.

- Agorila. 2.200 PTA



# LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.  
Tf. 943 76 71 19

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

**Ezker eskuma**

1. Eritetxeak.
2. Ezaugarri. Masurioa.
3. Zama. Kaiu, lelo.
4. Araknido-mota. Areago.
5. Errepikatuz, txori-mota. Kontsonante bikoitza. Gaixoa.
6. Emakume izena. ... egin, goitik ari.
7. Herri hizkeran, zer. Titanioa. Lehenengoa. Artsenikoa.
8. Uranioa. Garaia, ordua. Oxigenoa.
9. Zein lekutan jaioa.
10. Igarle. Nireak.


**Goitik behera**

1. Ezer ospatzeko egiten den ekitaldia.
2. Sei pertsonak edo gauzek osatutako multzo. Azti ezaguna.
3. Italiako hiri ezaguna. Azkenekoa. Leherkari-mota.
4. Inurrien bizileku.
5. Tantalioa. Oraindik.
6. Bihia. Röntgen. Duda partikula.
7. Pinu-mota. Bokala. Fruitu-mota.
8. Bokala. Iratzea. Baita.
9. Kontinente bat. Jainko egiptoarra.
10. Karrika. Begiradak.

**Soluzioa**

10. Kalea. Soak.  
 9. Amerka. Ra.  
 8. E. Aran. 8. E. Garo. Era.  
 7. Oromo. 6. Alaa. R. Ote.  
 6. Z. TNT. 4. Inurritegi.  
 5. Kontsonante. 2. Seikote. Oz.  
 4. Goitik behera.  
 3. Inurritegi. 10. Azti. Eneak.  
 2. A. A. As. 8. U. Tenore. O.  
 1. E. Eria. 6. Itzilar. Ok.  
 4. A. A. Ara. 4. A. A. Ara.  
 2. Seinale. Ma.  
 1. E. Eria. 6. Itzilar. Ok.

**bonofotoa**



Miguel Angel Elkoroberezibar



**galde debalde**

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezue!**

1. Bergarako zein tokitan landatuko dira arbolak zapatuko Zuhaitz Egunean?  
 A- Pol-Polen  
 B- Gorlan  
 C- San Martzialen
2. Zein da ETBk Bergaran grabatuko duen telebista berriaren izenburua?  
 A- Ertzainak  
 B- Hertzainak  
 C- Hertzianoak
3. Antonio Merinok non lortu zuen Euskadiko kross txapelketako 2. postua?  
 A- Ezkio-ltxason  
 B- Itsasondon  
 C- Antzuolan

**Bergarako erdialdeko zein kaletan daude bi atek?**

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Ixaun** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Irene Diaz Gereñuentzat** izan da Lasa jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Irene! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Mariaren Sierbak** Galde Debalde: **1-A, 2-C, 3-B**

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izena-deitura: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

**Ixaun**  
 jatetxea  
 Elosu auzoa  
 Tf. 943 15 05 50

Osintxuar gazte honek (21 urte) aurtengo Miss Araba eta Miss Euskadi lehiaketan parte hartu du. Estetizista ikasketak egin zituen eta gaur egun Gasteizko Txairoki modelo ajentzian ari da, pasarelan desfilatzeko sekretuak ikasten.

## Jone Molina

Miss Euskadi lehiaketan parte hartzearen gauzarik onena?  
Jende asko ezagutzen dela. Txarrena?  
Ez dauka gauza txarrik...  
Entxufismo asko dago?  
Hori esaten da.  
Modeloen artean lagun onak dituzu?  
Bai.  
Zer behar da modelo ona izateko?  
Gorputza.  
Eta zer erakusten da modelo ajentzietan?  
Pasarela gainean ibiltzea, mugitzea, kamara aurrean posatzea...  
Zure gorputzeko atalik gustokoena?  
Aurpegiko orina.  
Eta gutxien gustatzen zaizuna?  
Belarriak.  
Zirujia estetikoak egingo zenuke?  
Ez.  
Sasoian egoteko sekretu bat?  
Ondo lo egitea, 8 ordu gutxienez.  
Top model bat?  
Cindy Crawford.  
Gizon batengan zertan fijatzen zara lehenbizi?  
Beguradan.  
Zelakoa da zure gizon ideala?  
Zintzoa eta apala.  
Arropa diseinatzaile bat?  
Amaya Arzuaga.  
Gustoko jantzi bat?  
Txaketa eta prakak.

**Bikinia ala bainujantzia?**  
Bikinia.  
**Kolore bat?**  
Urdina.  
**Nongo pasarelan desfilatuko zenuke?**  
Cibelesen.  
**Dietarik egiten duzu?**  
Ez. Plater gustokoena barazkiak dira.  
**Kirolrik egiten duzu?**  
Aerobika lehen. Dantzan egitea asko gustatzen zait; juergan dantzan ibiltzen naiz.  
**Zelako musika atsegin duzu?**  
Denetik. Two unlimited adibidez.  
**Mania bat?**  
Kolore beltzeko arropa erosteak.  
**Zodiakoko zein zeinutakoa zara?**  
Leo.  
**Egin dizuten oparirik politena?**  
Urrezko katea.  
**Aktore bat?**  
Andy Garcia.  
**Irakurritako azken liburua?**  
"Sentido y sensibilidad".  
**Negar egin duzun azken aldia?**  
Ez dut gogoratzen.  
**Animalia bat?**  
Txakurra. "Mouli" izeneko bat daukagu.  
**San Balentin eguna ospatu zenuen?**  
Ez. **B**



**EDEL**  
TAPIZDENDA

*Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu*

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiara-motarik egokienaren berri eskatzea.

**Bidekurutzeta 14 BERGARA**

  
**SEGUROS LAGUN ARO**  
**ASEGURUAK**




**AGENTEA-DELEGATUA**

*Iraegi Aseguruak*

Ramon Maria Lili 6, beheka 20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54 / Faxes: 943 76 41 54  
ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00  
Larunbatetan: 9.00-13.00

**POL-POL**  
Taberna

☎ 943 76 07 78





## Tabernarien taldea. 1980. urtea

Tabernarien arteko partiduekin bueltaka jarraitzen dugu. Orain bi aste ezkongabeen taldea atera genuen eta aste honetan ezkon dutako tabernarien taldea dakargu. Badirudi ospitalaren aldeko partidu bat baino gehiago jokatu zirela, bi gutxienez: bata 1980ko abenduaren 8an eta bestea 1984ko abenduaren 30ean. Lehendabizikoa husnako emaitzarekin bukatu ei zen eta bigarrenen ezkongabeak 3 eta 1 nagusitu omen ziren. Orain bi aste erreturatu eta aste honetakoa 1980ko abenduaren 8koak dira hain zuzen. Egun horretan John Lennon musikaria hil zuten New Yorken. Baina futbol kontuetara bueltatuz, ezkon dutako tabernariek maila ona erakutsi zutela esan behar. Hara hor zeintzuk diren, ezkerretik eskumara (parentesi artean ordezkutzen zuten tabernaren izena):

**Zutik:** Andres Mujika (Tartufo), Baltasar Molina (Aralar), Jesus Aranzabal (Maxim's), Je-

sus Alfaro (Lonbide), Jesus Iñarra (Zer Nai), Josu Barrenetxea-Arando (Arando), Jose Mari Chimeno (Ariznoa) eta Pedro Andrinua (Iritzi).

**Makurtuta:** Felix Igartua (Tio Pitx), Pello Larrañaga (Avenida), Faustino Lazkano (Antoni), Jose Pescador (Maxim's), Jose Sanchez (La Parra), Miguel Mendibil (Kortazar), Inas Etxaniz (Erreki), Felix Aranburu (Piszinetakotaberna) eta Eusebio Txintxurreta (Eusebio).

Alboko argazki txikian, berriz, epailea, marrazainak eta bi taldeetako kapitainak ageri dira partidu atarian. Juan Egaña "Pitia", Pedro Andrinua, Josean Olabarria, Virginia Larrañaga, Jose Mari Lizaraburu eta Pedro Marin. Virginia estilo bikaina erakutsi zuen ohorezko sarka egiterakoan.

Argazkiak: Pedro Andrinua

### ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!

# Gidari onenek

# OHOREZKO-MATRIKULA

## merezi dute

### Aldatu zaitez MAPFREera

### Azkartu itzazu zure bonifikazioak

**Orain** zure automobilaren aseguruaren aldatzea **ez zaizu ezer kostako**.

**Mapfreren Ohorezko Matrikula Planarekin**, oraingo polizaren antiguedadeari eutsiko diozu (95.1.1. baino lehenago edozein konpainiatan kontratatutako polizetarako baliagarria).

Lor ezazu **bonifikaziorik haundiena denborarik motzengan**.



## MAPFRE

Argibideak: Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.



IAT/ITVren ONDOAN

## MARKIEGI autoak



Leizeaga 1 (San Lorenzo Industri Poligonoa) BERGARA / Tf. 943 76 35 09 Faxa 943 76 56 76



Alfa Romeo 

**FIAT**

Zatoz modelo berriak ezagutzera!


# JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra

Zure etxeko sukaldea berritu eta altzariak jarri aurretik, zatoz Jakinara. **Diseinua, kalitate/prezio** erlazio bikaina eta **saldu osteko zerbitzu** ezin hobea eskaintzen dizugu.



**6** URTEKO GARANTIA



**Sukaldeko altzariak**

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.

Telefona: 943 76 03 30. Faxes: 943 76 02 91.